

Nokia 6700 classic erabiltzailearen gida

ONESPEN ADIERAZPENA

CE 0434

Honen bidez, NOKIA CORPORATIONek adierazten du RM-470 telefonoak 1999/5/EC Arteztarauko oinarriko baldintzak eta dagozkion gainerako xedapenak betetzen dituela. Onespen-adierazpen horren kopia bat http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/ helbidean aurki daitezke.

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Nokia, Nokia Connecting People eta Navi Nokia Corporation-en marka erregistratuak edo komertzialak dira. Nokia tune, Nokia Corporationen soinu-marka bat da. Hemen aipatutako gainerako produktu edo enpresen izenak jabeak dituzten merkatal marka edo izenak izan daitezke.

Galarazita dago dokumentu honen edukia, zatika nahiz osorik, kopiatzea, igortzea, zabaltea edo gordetzea, edozein modutan, Nokia konpainiak alde aurretik idatzizko baimenik ematen ez badu. Nokia konpainiak etengabeko garapen politika bat du. Nokia konpainiak dokumentu honetan deskribatutako edozein produktutan aldaketak eta hobekuntzak egiteko eskubidea gordetzen du, alde aurretik horren berririk eman gabe.

US Patent No 5818437 and other pending patents. T9 text input software Copyright © 1997-2009. Tegic Communications, Inc. All rights reserved.



Includes RSA BSAFE cryptographic or security protocol software from RSA Security.



Java and all Java-based marks are trademarks or registered trademarks of Sun Microsystems, Inc.

Portions of the Nokia Maps software are ©1996-2009 The FreeType Project. All rights reserved.

Produktu honek MPEG-4 Visual Portfolio License-ek emandako lizentzia du (i) jarduera pertsonal eta ez komertzialetan ari den kontsumitzaile batek MPEG-4 Visual Standard-en arabera kodetutako informazioarekin erlazionatutako erabilpen pertsonal eta ez komertzialerako eta (ii) lizentziadun bideo hornitzaile batek emandako MPEG-4 bideoarekin erabiltzeko. Lizentzia batik ez da emango edo engaiatuko beste edozein erabilpenerako. Argibide gehigarriak, sustapena, barne edo erabilpen

komertzialekin zerikusia dutenak barne, MPEG LA, LLC-tik lortu daitezke. Ikusi <http://www.mpegla.com>.

LEGEAK ONARTZEN DUEN NEURRIRIK HANDIENEAN, NOKIA EDO BERE BESTE EDOZEIN BAIMEN HORNITZAILEK EZ DU INONDIK INORA ERANTZUKIZUNIK IZANGO, EDOZEIN DATU EDO IRABAZIEN GALERAGATIK EDO EDONOLA SORTUTAKO KALTE BEREZI, USTEKABEKO, ONDORIOZKO EDO ZEHARKAKOENGATIK.

DOKUMENTU HONEN EDUKIAK "BERE HORRETAN" HORNITZEN DIRA. LEGEAK ESKATZEN DUENETIK AT, DOKUMENTU HONEN ZEHAZTASUNARI, FIDAGARRITASUNARI EDO EDUKIARI DAGOKIONEZ EZ DA INOLAKO BERMERIK EMATEN, EZ ESPLIZITU EZ INPLIZITUKI, SALEROSGARRITASUN ETA HELBURU JAKIN BATERAKO EGOKITASUNARI DAGOKION BERMEAK BARNE, BAINA HAUETARA MUGATU GABE. NOKIA KONPAINIAK, EDONOIZ ETA AURRETIK OHARTARAZI GABE DOKUMENTU HAU BERRIKUSI EDO ERRETIATZTEKO ESKUBIDEA GORDETZEN DU. Produktu zehatzak eta produktu horientzako aplikazio eta zerbitzuak eskuratzeko aukera herrialde batetik bestera alda daitezke. Jo ezazu zure Nokia hornitzailearengana dauden produktu eta hizkuntzen aukeren berri izateko. Telefono honek Amerikako Estatu Batuetako eta beste herri batzuetako esportazio lege eta arauak bete behar dituzten osagai, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debekatuta dago legea urratzea.

FCC-REN OHARRA

Zure telefonoak irrati eta telebista interferentziak sor ditzake (telefonoa hargailu elektronikoa batetik oso gertu erabiltzen denean, adibidez). FCCk zure telefonoa erabiltzeari uzteko eska diezazukete, interferentzia horiek ezabatzeko ez balego. Laguntzarik behar izanez gero, zure inguruko zerbitzu-gunera jo. Telefono honek FCC-ko araudiaren 15. atala betetzen du. Telefonoa erabiltzeko bi baldintza hauek bete behar dira: (1) interferentzia kaltegarriak ez eragitea eta (2) jasotako interferentzia guztiak onartzea, nahi ez diren eragiketarik sor ditzakeenak barne. Nokia konpainiak argiro onartzen ez duen aldaketarik eginez gero, erabiltzaileak ekipamendu hau erabiltzeko baimena gal dezake.

Modelo zenbakia: 6700c

9214735/Argitalpena 2 EU

Edukia		Informazio mezuak, SIM mezuak eta zerbitzu komandoak	18
Segurtasuna	5	Ahots-mezuak	18
Informazio orokorra	6	Mezuen ezarpenak	18
Zure telefonoa	6	Posta elektronikoa eta istanteko mezularitza	19
Sareko zerbitzuak	6	Kontaktuak	23
Sarbide kodeak	6	Kudeatu kontaktuak	23
Konfigurazio ezarpenen zerbitzua	7	Bisita txartelak	24
My Nokia	7	Markazio lasterbideak esleitzea	24
Edukia deskargatzea	7	Dei erregistroa	24
Aholku lagungarriak	7	Kokaleku erregistroa	24
Softwareko eguneratzeak	8	Konektibitatea	24
Nokia laguntza	8	Haririk gabeko Bluetooth teknologia	25
Eskubide digitalen kudeaketa	9	Pakete datuak	26
Oinarrizko kontzeptuak	9	USB datu kablea	26
Sartu SIM txartela eta bateria	9	Sinkronizazioa eta babeskopiak	26
Sartu microSD txartela	10	Nokia PC Suite	26
Kendu microSD txartela	10	Ezarpenak	26
Kargatu bateria	10	Profilak	26
Antena	11	Gaiak	27
Uhala	11	Tonuak	27
Teklak eta atalak	11	Argiak	27
Telefonoa piztea eta itzaltzea	12	Pantaila	27
Egonean modua	12	Data eta ordua	27
Hegaldi-modua	14	Nire lasterbideak	28
Tapping	14	Deitu	28
Teklatuaren blokeoa	15	Telefonoa	28
SIM txartelik gabe dabil	15	Ahots-komandoak	29
Deitzeak	15	Osagarriak	29
Dei bat egitea	15	Konfigurazioa	29
Hartu eta amaitu deiak	15	Airean zehar dauden software eguneratzeak	30
Markazio lasterbideak	15	Segurtasuna	30
Ahots bidezko markatzea	15	Jatorrizko ezarpenak berreskuratzeko	31
Dei bat izatean dauden aukerak	16	Operadore menua	31
Mezuak	16		
Testu-mezuak eta multimedia mezuak	16		
Flash mezuak	17		
Nokia Xpress audio mezuak	18		

Galeria	31	Bateria eta kargagailuaren informazioa	42
Karpetak eta artxibategiak	32	Nokia bateria autentikatzeko jarraibideak	42
Irudiak inprimatu	32		
Partekatu irudiak eta bideoak sarean	32		
Memoria txartela	32		
Media	33	Arreta eta mantenimendua	43
Kamera eta bideoa	33	Botatzerakoan	43
Multimedia erreproduziztailea	34		
Irratia	35	Segurtasun informazio osagarria	43
Ahots grabagailua	35	Ume txikiak	43
Ekualizadorea	36	Inguru eragilea	43
		Aparatu medikoak	44
		Ibilgailuak	44
		Balizko ingurune leherkorak	44
		Larrialdi-deiak	44
		Ziurtagiri informazioa (SAR)	45
Web	36		
Zerbitzu batera konektatzea	36		
Kargatu sarean	37		
Itxura ezarpenak	37		
Cache memoria	37		
Nabigatzailearen segurtasuna	37		
Mapak	38	Aurkibidea	46
Mapak deskargatzea	38		
Mapak eta GPS	39		
Bestelako zerbitzuak	39		
Antolatzailea	39		
Iratzargailua	39		
Egutegia	39		
Egitekoen zerrenda	40		
Oharrak	40		
Kalkulagailua	40		
Atzerako denboragailua	40		
Kronometroa	40		
Aplikazioak	41		
Ireki aplikazio bat	41		
Aplikazio bat deskargatu	41		
SIM zerbitzuak	41		
Osagarriak	42		
Bateria	42		

Segurtasuna

Jarraibide erraz hauek irakurri. Jarraibideok ez betetzea arriskutsua edo legez kanpokoia izan daiteke. Informazio gehiago behar izanez gero, erabiltzailearen gida osoa irakurri.

MODU SEGURUAN PIZTU



Ez piztu telefonoa haririk gabeko telefonoak erabiltzea debekatuta baldin badago edo interferentziarik edo arriskurik sor baliteke.

ERREPIDEAN KONTUZ IBILTzea DA GARRANTZITSUENA



Herri bakoitzeko arau guztiak bete. Gidatzeko orduan, eskuak beti libre eduki autoa gidatzeko. Gidatzen ari zarenean, errepidean kontuz ibiltzea da garrantzitsuena.

INTERFERENTZIAK



Haririk gabeko telefono guztiak interferentziak jasan ditzakete, eta horrek telefonoaren jarduna kaltetu dezake.

DEBEKATUTAKO TOKIETAN ITZALI



Telefonoa erabiltzeko murrizketa guztiak bete. Hegazkinetan eta medikuntzako tresneria, erregai, produktu kimiko edo leherketen arriskua duten guneen inguruan telefonoa itzali.

ZERBITZU HOMOLOGATUA



Langile homologatuek bakarrik instalatu edo konpondu dezakete telefonoa.

OSAGARRIAK ETA BATERIAK



Osagarri eta bateria onartuak soilik erabili behar dira. Ez konektatu produktu bateraezinik.

URAREKIKO ERRESISTENTZIA



Zure telefonoak ez du urarekiko erresistentziarik. Lehor manten ezazu.

Informazio orokorra

Zure telefonoa

Gida honetan deskribatzen den haririk gabeko telefonoa GSM 850, 900, 1800, 1900 eta WCDMA 900, 1900 eta 2100 MHz sareak erabiltzeko homologatuta dago. Sareei buruzko informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Baliteke telefonoak laster-markak eta Interneteko hirugarrenen guneetarako estekak instalatuta izatea; beraz, hirugarrenen guneetan sartzeko aukera izan dezakezu. Hauek ez daude Nokia konpainiarekin afiliatuta eta Nokia konpainiak ez du hauen inolako erantzukizunik bere gain hartzen. Gune hauetan sartzen bazara, kontutan hartu segurtasuna eta edukia.

Abisua:

Iratzargailua ez beste aukerarik erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa, haririk gabeko gailuen erabilerak interferentziarik edo arriskurik sor badezake.

Telefonoa erabiltzeko garaian, bete lege guztiak eta errespetatu tokian tokiko ohiturak eta besteen pribatutasun eta legezko eskubideak, copyright eskubideak barne. Copyright babesa dela eta, argazkiak, musika eta bestelako edukiak kopiatu, aldatu, igorri edo bidali edo birbidaltzea galarazita egon liteke.

Telefonoan gordetako informazio garrantzitsuaren segurtasun-kopiak egitea edo informazio hori idatziz gordetzea gomendatzen da.

Beste edozein gailutara konektatu aurretik, gailu horren erabiltzaile-gida irakurri, segurtasunari buruzko

xehetasunen berri jasotzeko. Ez konektatu produktu bateraezinik.

Baliteke gidako irudiak zure telefonokoen berdinak ez izatea.

Jo ezazu erabiltzailearen gidara zure gailuari buruzko informazio garrantzitsu gehiago izateko.

Sareko zerbitzuak

Telefonoa erabiltzeko haririk gabeko zerbitzu-hornitzaile baten harpidedun izatea beharrezkoa da. Zenbait aukera ez daude erabilgarri sare guztietan, zenbait funtzio zerbitzu-hornitzaileekin akordio bereziak izatea eska dezakete. Sareko zerbitzuak erabiltzean datu-transmisioak gauzatzen dira. Jo zerbitzu-hornitzailea zure hornitzailearen sareko eta roaming sareetako datu-transmisio tarifak ezagutzeko. Zure zerbitzu-hornitzaileak zer kostu aplikatuko den azal dezake.

Zure zerbitzu-hornitzaileak telefonoko zenbait aukera ezgaitzeko edo ez aktibatzeko eskatu liezazuke. Kasu horretan, aukera horiek ez dira telefonoko menuan agertuko. Telefonoan menuaren izenak, menuaren ordena eta ikonoak bezalako elementuak pertsonaliza daitezke.

Sarbide kodeak

Telefonoaren sarbide kode eta segurtasun ezarpenak zehazteko, aukeratu **Menua > Ezarpenak > Segurtasuna > Sarbide kodeak**.

- Segurtasun kodeak telefonoa baimenik gabe erabiltzea ekiditen lagunduko dizu. Kode lehenetsia 12345 da. Kodea alda dezakezu eta telefonoak kodea eska dezan ezar dezakezu. Zenbait eragiketek segurtasun kodea behar dute konfigurazioa kontutan hartu gabe,

adibidez ezarpenen leheneratzea. Kode berria ezkutuan, leku seguru batetan eta telefonotik urrun gorde. Kodea ahazten baduzu eta telefonoa blokeatuta badago, baliteke telefonoak ordaindu beharreko zerbitzuak behar izatea. Informazio gehiagorako, jo Nokia Care gunera edo zerbitzu-hornitzaileara.

- PIN (UPIN) kodea, SIM (USIM) txartelarekin eskuratzen dena, txartela baimenik gabe erabiltzea ekiditeko da.
- PIN2 (UPIN2) kodea, SIM (USIM) txartel batzuekin eskuratzen dena, zerbitzu jakin batzuetara sartzeko erabiltzen da.
- PUK (UPUK) eta PUK2 (UPK2) kodeak SIM (USIM) txartelarekin eskura daitezke. PIN kodea hiru aldiz jarraian oker idatziz gero, PUK kodea eskatzen da. PUK kodea SIM txartelarekin jaso ez baduzu, jo zerbitzu-hornitzaileara.
- Debeku pasahitza beharrezkoa da telefonoan deien debekuak erabiltzeko (sareko zerbitzua).
- Arakatzaileren segurtasun moduluko ezarpenak ikusteko edo aldatzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Segurtasuna > Segurt.-modul. ezarp..**

Konfigurazio ezarpenen zerbitzua

Sareko hainbat zerbitzu erabiltzeko, internet mugikorreko zerbitzuak, multimedia mezuen zerbitzua (MMS), Nokia Xpress audio mezuak edo urrutiko internet zerbitzarien sinkronizazio esaterako, zure telefonoak konfigurazio ezarpen zuzenak behar ditu.

Eskuragarritasuna ezagutzeko, jarri harremanetan zure zerbitzuaren hornitzailearekin edo baimendutako Nokia hornitzaile hurbilenarekin, edo ikusi Nokia webgunearen laguntza gunea. [Ikus "Nokia laguntza"8.](#)

Behin ezarpenak konfigurazio mezu baten bidez jasota eta ezarpenak automatikoki gorde eta aktibatzen ez badira, **Jasotako konfigurazio ezarpenak:** agertuko da.

Ezarpenak gordetzeko, hautatu **Erakutsi > Gorde**. Beharrezkoa bada, sartu zerbitzuaren hornitzaileak emandako PIN gakoa.

My Nokia

Jaso doako aholkuak, trukuak eta laguntza zure Nokia telefonoarentzat. Baita frogatzeko doako edukiak, erakustaldi interaktiboak, webgune pertsonalizatua eta Nokiaren produktu eta zerbitzu berrienei buruzko informazioa.

Atera etekina zure Nokia telefonoari eta izena eman gaur bertan My Nokian! Xehetasunak eta zure eskualdeko eskuragarritasunari buruzko informazioa jasotzeko, ikus www.nokia.com/mynokia.

Edukia deskargatzea

Zure telefonoan (sare zerbitzua) eduki berriak deskargatzeko aukera izango duzu (gaiak, adibidez).

Garrantzitsua: Fidagarriak diren eta segurtasun eta babes egokia ematen duten zerbitzuak bakarrik erabili software kaltegarrien aurka.

Zerbitzuen eskuragarritasunari eta prezioei buruzko informazioa izateko, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

Aholku lagungarriak

Zure telefonoari buruzko kontsultarik baduzu, edo nola ibili behar denari buruzko zalantzarik baduzu, jo ezazu

erabiltzailearen gidara. Honek ez badizu laguntzen, hurrengoarekin saiatu:

- Telefonoa berrezarri: telefonoa itzali eta bateria atera. Segundu batzuk igaro ondoren, sartu bateria eta telefonoa piztu.
- Jatorrizko ezarpenak berreskura itzazu. [Ikus "Jatorrizko ezarpenak berreskuratzeko"31.](#)
- Egunera ezazu telefonoa Nokiaren Software Eguneratzailearekin, erabilgarri baldin badago. [Ikus "Softwareko eguneratzeak"8.](#)
- Bisitatu Nokia webgunea, edo harremanetan jarri Nokia Care-rekin. [Ikus "Nokia laguntza"8.](#)

Ez bazaizkizu kontsultak erantzun, harremanetan jarri zure Nokia Care puntuarekin konponketa aukerak ezagutzeko. Zure telefonoa konpontzera bidali baino lehen, beti kopiak gorde edo zure telefonoak gordetako datuak grabatu.

Softwareko eguneratzeak

Baliteke Nokiak software eguneratzea, funtzio berriak, hobekuntza edo erabilera berriak sortzea. Ordenagailuko Nokia Software Updater aplikazioaren bidez eska ditzakezu eguneratze hauek. Gailuaren softwarea eguneratzeko, Nokia Software Updater aplikazioa eta Microsoft Windows 2000, XP edo Vista sistema eragilea instalatuta daukan PC bateragarri bat beharrezkoak dira, eta baita banda zabaleko interneteko sargunea eta datuen kable bateragarria gailua ordenagailura konektatzeko ere.

Informazio gehiago lortzeko eta Nokia Software Updater aplikazioa deskargatzeko, ikusi www.nokia.com/softwareupdate edo zure lurraldeko Nokia webgunea.

Zure sareak hari gabeko software eguneratzeak onartzen baldin baditu, hauek telefonoaren bidez ere eska ditzakezu. [Ikus "Airean zehar dauden software eguneratzeak"30.](#)

Garrantzitsua: Fidaragarriak diren eta segurtasun eta babes egokia ematen duten zerbitzuak bakarrik erabili software kaltegarrien aurka.

Nokia laguntza

Zoaz www.nokia.com/support edo zure tokiko Nokia-ren webgunera gida honen azken bertsioa, informazio gehigarria, deskargak, eta zure Nokia produktuarekin erlazionatutako zerbitzuak ezagutzeko.

Konfigurazio ezarpenen zerbitzua

Deskargatu doako MMS, GPRS, posta elektronikoa eta bestelako konfigurazio-ezarpenak zure telefono-modeloarentzako, www.nokia.com/support

Nokia PC Suite

Nokia PC Suite aplikazioari buruzko informazio gehiago aurki dezakezu Nokia-ren webgunean, www.nokia.com/support

Nokia Care zerbitzuak

**NOKIA
Care**

Laguntza-zerbitzuarekin harremanetan jartzeko, begiratu tokiko Nokia Care harremanetarako zentroen zerrenda www.nokia.com/customerservice.

Mantenua

Mantenu zerbitzua lortzeko, bilatu zuek hurbilen dagoen Nokia Care puntua www.nokia.com/repair.

Eskubide digitalen kudeaketa

Edukien jabe batzuek DRM edo eskubide digitalen kudeaketa (Digital Rights Management) teknologia ezberdinak erabil ditzakete, copyrightak barne, beraien jabetza intelektuala babesteko. Gailu honek DRM software desberdinak erabiltzen ditu DRM-arekin babestutako edukiak atzitzeko. Gailu honekin, honako kudeatzaileekin babestutako edukiak atzitu ditzakezu: WMDRM 10, OMA DRM 1.0, OMA DRM 1.0 blokeoa, eta OMA DRM 2.0. DRM softwarearen batek edukirik babesten ez badu, eduki honen jabeek DRM-en aurka babestutako edukira sartzeko DRM software honek duen gaitasuna baliogabetzeko eskatzeko eskubidea dute. Honek DRM-arekin babestutako eduki hori berriz zure telefonon berritzea saihas dezake. DRM software hori baliogabetzeak ez du eraginik beste mota batzuetako DRM-arekin babesturiko edo babestu gabeko edukiak erabiltzerakoan.

Eskubide digitalen kudeaketak (DRM) babestutako edukiak, berari dagokion aktibazio kode bat dauka edukia erabiltzeko zure eskubideak azalduz.

Telefonoak OMA DRM bidez babestutako edukia badu, aktibazio-gakoen eta edukia segurtasun-kopiak egiteko erabili Nokia PC Suiteko funtzioa.

Zure telefonoak WMDRM bidez babestutako edukia baldin badauka, aktibazio-gakoak eta edukia galduko dira telefonoaren memoria formateatuz gero. Aktibazio-gakoak eta edukia gal ditzakezu zure telefonoko fitxategiak hondatuz gero. Aktibazio-gakoak edo edukia galtzeak, zure telefonon berriz eduki bera erabiltzeko aukera muga dezake. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Oinarrizko kontzeptuak

Sartu SIM txartela eta bateria

Segurtasunez kentzea. Bateria kendu aurretik, beti telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

Telefonoa BL-6Q bateriarekin erabiltzeko egina dago. Erabili beti Nokiaren jatorrizko bateriak. [Ikus "Nokia bateria autentikatzen jarraibideak" 42.](#)

SIM txartela eta bertako kontaktuak erraz kalte daitezke urratze edo okertzeen ondorioz. Beraz, kontuz aritu txartela erabili, sartu edo ateratzerakoan.

- 1 Kendu atzeko estalkia.



- 2 Sartu SIM txartela zirikrituan kontaktuak behera begira duela.



- 3 Begiratu bateriaren kontaktuak eta sartu bateria.



- 4 Jarri atzeko estalkia.



Sartu microSD txartela

Erabili soilik Nokiak telefono honetan erabiltzeko onartuta dituen microSD txartelak bateragarriak. Nokiak onartutako sektoreko estandarrak erabiltzen ditu memoria txartelentzako, halere baliteke marka batzuk guztiz bateragarriak ez izatea. Bateraezina den txartel bat erabiliz gero, txartela eta telefonoa kaltetu eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.

Zure telefonoak gehienez 8 GBko microSD txartelak onartzen ditu.

- 1 Kendu atzeko estalkia.
- 2 Sartu SIM txartela microSD zirrikituan kontaktuak behera begira dituela.



- 3 Jarri atzeko estalkia.

Kendu microSD txartela

- 1 Kendu gailuaren atzeko estalkia.
- 2 Atera memoria-txartela.

Kargatu bateria

Zure bateria aurretik kargatuta dago, baina kargatze mailak ezberdinak izan daitezke.

- 1 Konektatu bateria hartune batera.



- 2 Konektatu kargagailua gailuari.
- 3 Bateria erabat kargatzen denean, deskonektatu kargagailua gailutik eta ondoren hartunetik.

Halaber, bateria USB kable bat erabiliz kargatu dezakezu ordenagailu baten energiarekin.

- 1 Konektatu USB kablea ordenagailu baten USB atakari eta zure gailuari.
- 2 Bateria erabat kargatzen denean, deskonektatu USB kablea.

Bateria guztiz deskargatuta baldin badago, kargatzailearen ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

Kargatzearen iraupena kargagailuaren arabera da. BL-6Q bateria bat AC-8, AC-15 kargagailuarekin kargatzeko 1 ordu 25 minutu inguru behar dira telefonoa hasierako pantailan izanda.


Antena

Baliteke zure telefonoak antena barruan eta kanpoan izatea. Saihestu antena behar ez denean erabiltzen antena transmititzen edo jasotzen ari den bitartean. Antena ukitzeak komunikazioaren kalitatean eragina du; gainera, telefonoak beharrezkoa baino bateria gehiago gasta lezake eta, ondorioz, bateriaren iraupena murriz liteke.

Irudiak antena gunea grisez markatuta erakusten du.

Uhala

- 1 Atzekaldeko karkasa kendu.
- 2 Uhal bat sartu eta estutu.
- 3 Atzekaldeko karkasa berriz jarri.

**Teklak eta atalak**

- 1 Belarriko entzungailua
- 2 Pantaila
- 3 Ezkerreko eta eskuineko hautatze teklak
- 4 Deitze tekla
- 5 Pizteko/Amaitzeko tekla
- 6 Navi™ tekla, hemendik aurrera nabigazio tekla
- 7 Teklatua



- 8 Bolumen teklak
- 9 Kameraren flasha
- 10 Kameraren lentea
- 11 Kaptura tekla
- 12 Bozgorailua
- 13 Kargagailuaren konektorea
- 14 Uhalaren euskarria
- 15 Mikrofonoa
- 16 USB konektorea

Telefonoa piztea eta itzaltzea



Telefonoa piztu eta itzaltzeko, sakatu eta eutsi sakatuta pizteko tekla.

Telefonoak PIN gako bat eskatzen badizu, sartu gakoa (**** agertuko da).


Telefonoak ordua eta data eskatzen badizu, sartu tokiko ordua, hautatu zure tokiko ordu zona Greenwich Mean Time (GMT)-rekiko ezberdintasuna kontutan hartuz, eta sartu data. [Ikus "Data eta ordua"27.](#)

Telefonoa lehenengo aldiz pizten duzunean, baliteke zure zerbitzu-hornitzailearengandik konfigurazio-ezarpenak eskuratzeko eskatzea (sareko zerbitzua).

Egonean modua

Telefonoa erabiltzeko prest dagoenean, eta karaktererik sartu ez duzunean, telefonoa egonean moduan egongo da.

Pantaila



- 1 Sare mugikorraren seinalearen indarra
- 2 Bateriaren kargaren egoera
- 3 Adierazleak
- 4 Ordularia
- 5 Sarearen izena edo operadorearen logotipoa
- 6 Data
- 7 Pantaila
- 8 Ezkerreko hautatzeko tekla
- 9 Korritze tekla
- 10 Eskuineko hautatzeko tekla

Ezkerreko eta eskuineko hautatzeko tekla funtzioa aldatu dezakezu. [Ikus "Ezkerreko eta eskuineko hautatzeko tekla" 28.](#)

Hasiera pantaila

Hasiera pantailan telefonoko hainbat funtzio eta sarbide zuzeneko informazioa ikusten dira.

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Pantaila > Hasierako pantaila.**

Hasiera pantaila aktibatzen edo desaktibatzen, hautatu **Hasier. pant. modua.**

Hasiera pantaila antolatzen eta aldatzen, hautatu **Pertsonalizatu.**

Hasiera pantaila aktibatzen den teklak hautatzeko, hautatu **Hasier. pant. gakoa.**

Ezarpenen arabera, hasiera pantailan joan gora edo behera zerrenda arakatzeko eta hautatu **Aukeratu, Ikusi** edo **Editatu**. Geziak informazio gehiago eskuragarri dagoela adierazten dute. Nabigazioa uzteko, hautatu **Irten.**

Lasterbideak

Telefonoa egonean moduan edo hasiera pantailan dagoenean, hurrengo lasterbideak erabil ditzakezu.

Galdutako, jasotako eta markatutako deien zerrenda erakustea

Sakatu deitzeko teklak. Dei bat egiteko, joan zenbakira edo izenera eta sakatu deitzeko teklak.

Web arakatzaileraren piztea

Sakatu eta eutsi sakatuta **0.**

Ahots postontzira deitzea

Sakatu eta eutsi sakatuta **1.**

Beste tekla lasterbide gisa erabiltzea

[Ikus "Markazio lasterbideak" 15.](#)

Adierazleak



Irakurri gabeko mezuak dituzu.



Bidali gabeko, bertan behera utzitako edo bidaltzean huts egindako mezuak dituzu.











Teclatuaren blokeatuta dago.



Telefonoak ez du soinurik egiten deiak edo testu mezuak jasotzean.



Alarma bat ezartzen da.

-  Telefonoa erregistratuta dago GPRS edo EGPRS sarean.
-  Telefonoak GPRS edo EGPRS konexio irekia du.
-  GPRS edo EGPRS konexioa eseki egin da (zain dago).
-  Bluetooth konektibitatea aktibatuta dago.
-  Bi telefono linea badituzu, bigarren telefono linea hautatuko da.
-  Jasotzen diren dei guztiak beste zenbaki batera desbideratuko dira.
-  Deiak erabilzaille talde itxi batera mugatuta daude.
-  Une honetako profil aktiboa tenporizatua dago.

Hegaldi-modua

Erabili Hegaldi-modua irratiekiko sentikorrak diren inguruneetan irratifrekuentziaren funtzioak desaktibatzeke. Lineaz kanpoko jokoetarako, egutegirako eta telefono-zenbakietarako sarbidea izango duzu. Hegaldi-modua aktibatuta dagoenean, ➔ agertuko da.

Hegaldi-modua aktibatzea

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Profilak > Hegaldia > Aktibatu** edo **Pertsonalizatu**.

Hegaldi-modua desaktibatzea

Hautatu beste profilen bat.

Abisua:

Hegaldi moduan ezin daiteke deirik egin edo jaso, larrialdi deiak barne, ez eta hari gabeko sare estaldura eskatzen duten beste funtzio batzuk erabili ere. Deiak egin ahal izateko, lehenik eta behin profilak aldatu eta, gero, telefonoaren funtzionalitatea aktibatu behar da. Gailua blokeatua izan bada, sar ezazu blokeatzeko kodea.

Telefonoa blokeatuta dagoen bitartean eta Hegaldi profilean larrialdi dei bat egin behar izanez gero, zure telefonoko blokeatutako kode eremuan ezarrita dagoen larrialdi zenbaki ofiziala sar dezakezu eta jarraian aukeratu "Deitu". Telefonoak Hegaldi profiletik ateratzen ari zarela baieztatuko dizu larrialdi dei bat egin ahal izateko.

Tapping

Tapping funtzioa erabiliz, deiak eta tonuak isilarazi eta uko egin diezaikezu, eta erloju bat agertarazi telefonoaren aurreko edo atzeko aldean bi aldiz ukituz.

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Sensor-ezarpenak tapping funtzioa** eta bibrazio informazioa aktibatzeke.

Deiak edo alarmak mututzea

Ukitu telefonoa bitan.

Dei bat ukatzea edo alarma bat atzeratzea behin mutututa

Ukitu telefonoa bitan berriz.

Erlojua bistaratzea

Ukitu telefonoa bitan.

Galdutako deiak badituzu edo mezu berririk jaso baduzu, haiak ikusi behar dituzu erlojua ikusi baino lehen.

Teklatuaren blokeoa

Teklatua nahi gabe sakatzea ekiditzeko teklatua blokeatzeko, hautatu **Menua**, eta sakatu * 3,5 segunduko tartean.

Teklatua desblokeatzeko, hautatu **Desblok**, eta sakatu * 1,5 segunduko tartean. Eskatzen bazaizu, sartu blokeo gakoa.

Teklatua blokeatuta dagoenean deiak erantzuteko, sakatu deitze tekla. Deia amaitzean edo ukatzean, teklatua automatikoki blokeatzen da.

Beste funtzio batzuk zorro automatikoa eta segurtasun zorroa dira. [Ikus "Telefonoa"28.](#)

Telefonoa edo teklatua blokeatuta egonda ere, telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitu ahal izango da.

SIM txartelik gabe dabil

Baliteke telefonoaren hainbat funtzio SIM txartelik sartu gabe erabili ahal izatea, Antolatzailearen funtzioak eta jokoak, esaterako. Funtzio batzuk testu ilunez agertzen dira eta ezin dira erabili.

Deitzeak

Dei bat egitea

Deiak egiteko hainbat era dago:

- Sartu telefono zenbakia, lurredearen kode eta guzti, eta sakatu deitze tekla.

Nazioarteko deietan, * bi aldiz sakatu + nazioarteko aurrezenbakirako (honek nazioarteko sarbide kodea ordezkatzeko), sakatu herrialdearen aurrezenbakia eta lurredearen aurrezenbakia, beharrezkoa izanez gero, hasierako

zeroa kenduz, eta sartu telefono zenbakia.

- Dei erregistroan sartzeko, sakatu behin deitze tekla hasierako pantailan. Hautatu zenbaki edo izen bat, eta sakatu deitze tekla.
- Bilatu kontaktuen zerrendan gordetako izen edo telefono zenbaki bat. [Ikus "Kudeatu kontaktuak"23.](#)

Dei batean bolumena egokitzeko, sakatu bolumen tekla gora edo behera.

Hartu eta amaitu deiak

Jasotako deia hartzeko, sakatu deitzeko tekla. Deia amaitzeko, sakatu amaitzeko tekla.

Jasotako deia baztertzeko, sakatu amaitzeko tekla. Tonua isilarazteko, aukeratu **Isilik**.

Markazio lasterbideak

Telefono zenbaki bat esleitu zenbaki tekletariko bati, 2-9. [Ikus "Markazio lasterbideak esleitzea"24.](#)

Erabili markazio lasterbide bat dei bat egiteko bide hauetako bat erabiliz:

- Zenbaki tekla bat sakatu, gero deitze tekla sakatu.
- Menua > Ezarpenak > Deia > Markatze bizkorra > Piztuta** hautatuz gero, eduki sakatuta zenbaki tekla bat.

Ahots bidezko markatzea

Deitu kontaktuei haien izena esanda.

Ahots-komandoak hizkuntzaren araberakoak direnez, ahots bidezko markatzea erabili aurretik, aukeratu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Hizkuntza ezarpenak > Tel.aren hizkuntza** eta zure hizkuntza.

Oharra: Ahots identifikadoreak erabiltzea zaila izan daiteke ingurune zaratatsu batean edo larrialdi batean; beraz, egoera guztietan ez da gomendatzen ahotsez markatutako deietan fidatzea.

- 1 Hasiera pantailan eduki sakatuta eskuineko aukeraketa tekla. Tonu labur bat entzungo da, eta **Hitz egin tonuaren ondoren** agertuko da.
- 2 Esan deitu nahi diozun kontaktuaren izena. Ahots-azterketak ulertzen bazaitu, izenen zerrenda bat agertzen da. Telefonoak zerrendako lehen izena erreproduzitzen du. Komando zuzena ez bada, joan zerrendako beste sarrera batera.

Dei bat izatean dauden aukerak

Dei bat izatean erabil daitezkeen aukerak askori sareko zerbitzu esaten zaie. Horien eskuragarritasunari buruz jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

Dei batean, hautatu **Aukera** eta aukera egokia.

Mezuak

Testu-mezuak eta multimedia-mezuak, posta elektronikoa, audio-mezuak eta flash-mezuak irakurri, idatzi eta bidali ahal dituzu. Mezularitza zerbitzuak erabil daitezke zure sareak edo zerbitzu-hornitzaileak onartuz gero soilik.

Testu-mezuak eta multimedia mezuak

Mezu bat sor dezakezu eta, nahiez gero, hari irudi bat erantsi, esaterako. Telefonoak automatikoki aldatuko du testu-mezua multimedia mezura fitxategi bat eransterakoan.

Testu mezuak

Zure telefonoak mezu bakarrek muga gainditzen duten mezuak onartzen ditu. Mezu luzeagoak bi mezu edo gehiagotan banatuta bidaltzen dira. Zerbitzu-hornitzaileek bidalitako mezu kopuruaren arabera kobratu ohi dute. Azentu-markak, bestelako ikurrak edo zenbait hizkuntzen aukerak leku gehiago hartzen dute, eta mezu batean bidal daitekeen karaktere kopurua murriztu egiten da.

Gelditzen den karaktere kopurua eta bidalketarako behar den mezu kopurua erakusten dira.

Mezuak bidali ahal izateko, mezu-zentroaren zenbaki zuzena izan behar da telefonoan gordeta. Normalean, zenbaki hau SIM txartelak zehazten du lehenespenez. Zenbakia eskuz zehazteko, hautatu **Menua > Mezularitza > Mezu-ezarpenak > Testu mezuak > Mezu zentroak > Zentroa gehitu**, eta sartu zerbitzu-hornitzailearen izena eta zenbakia.

Multimedia mezuak

Multimedia mezuek testua, irudiak, soinu klipak eta bideo klipak izan ditzakete.

Aukera bateragarriak dituzten telefonoek soilik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak. Mezuen itxura aldatu egiten daitezke mezua jasotzeko erabilitako telefonoaren arabera.

Haririk gabeko sareak MMS mezuen neurria muga dezake. Txertatutako argazkiak muga gaindituz gero, telefonoak argazkia txikiagotu dezake MMS bidez bidali ahal izateko.

Garrantzitsua: Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuek asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

Multimedia mezularitza zerbitzura (MMS) harpidetzeko eta horren erabilgarritasunari buruzko informazioa lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Sortu testu-mezu bat edo multimedia mezu bat

- 1 Hautatu **Menua > Mezularitza > Mezua sortu > Mezua**.
- 2 Hartzailak gehitzeko, joan **Nori:** eremura eta idatzi hartzailaren zenbakia edo helbide elektronikoa, edo hautatu **Gehitu** hartzailak eskuragarri dauden aukeren artean. Hautatu **Aukera** hartzailak eta gaiak gehitzeko eta bidaltzeko aukerak ezartzeko.
- 3 Joan **Testua:** eremura eta mezuaren testua idatzi.
- 4 Mezuari edukia eransteko, joan pantailaren beheko aldean kokatutako eranskinen barrara eta hautatu nahi duzun eduki mota.
- 5 Mezua bidaltzeko, hautatu **Bidali**.

Pantailaren goiko partean mezu mota agertzen da eta automatikoki aldatuko da mezuaren edukiaren arabera.

Baliteke zerbitzu-hornitzaileek tarifa ezberdinak aplikatzea mezu motaren arabera. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Mezu bat irakurtzea eta erantzutea

Garrantzitsua: Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuek asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

Zure telefonoak jakinarazpen bat igortzen du mezu bat jasotzerakoan. Hautatu **Ikusi** mezua ikusteko. Mezu bat baino gehiago jasoz gero, mezu bat ikusteko,

hautatu mezua postontzian eta **Ireki**. Erabili korritze tekla mezuaren atal guztiak ikusteko.

Erantzuteko mezu bat eratzeko, hautatu **Erantzun**.

Mezuak bidaltzea

Mezua bidaltzea

Mezua bidaltzeko, hautatu **Bidali**. Telefonoak mezua **Irteera erretilua** karpetan gordetzen du, eta bidaltzen hasten da.

Oharra: Mezua bidali dela dioen testu edo ikonoa pantailan agertzeak ez du esan nahi hartzailak mezua jaso duenik.

Mezuaren bidaltzea geldituz gero, telefonoa hainbat aldiz saiatuko da mezua berriro bidaltzen. Saiakera horiek huts egiten badute, mezua **Irteera erretilua** karpetan geratzen da. Mezuen bidaltzea kitatzeko **Irteera erretilua** karpetan, hautatu **Aukera > Ezeztatu bidalketa**.

Bidalitako mezuak gordetzeko **Bidalitako elem.** karpetan, hautatu **Menua > Mezularitza > Mezu-ezarpenak > Ezarpen orokorrak > Mezu bidaliak gorde**.

Zure mezuak antolatzea

Telefonoak jasotako mezuak **Sarrera ontzia** karpetan gordetzen ditu. Zure mezuak antolatu gordetako elementuen karpetan.

Karpeta bat gehitzeko, izenez aldatzeko edo ezabatzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Gordetako elem. > Aukera**.

Flash mezuak

Flash mezuak jaso eta berehala erakusten diren mezuak dira.

- 1 Flash mezu bat idazteko, hautatu **Menua > Mezularitza > Mezua sortu > Flash mezu**.
- 2 Hartzailearen telefono zenbakia idatzi, zure mezua idatzi eta hautatu **Bidali**.

Nokia Xpress audio mezuak

Sortu eta bidali audio mezu bat erosotasunez MMS mezuak erabiliz.

- 1 Hautatu **Menua > Mezularitza > Mezua sortu > Audio mezu**. Ahots grabagailua irekitzen da.
- 2 Zure mezua grabatu. [Ikus "Ahots grabagailua"35.](#)
- 3 Sartu telefono zenbaki bat edo gehiago **Nori**: eremuan, edo hautatu **Gehitu** zenbaki bat berreskuratzeke.
- 4 Mezu bidaltzeko, hautatu **Bidali**.

Informazio mezuak, SIM mezuak eta zerbitzu komandoak

Informazio mezuak

Hainbat gairi buruzko mezuak jaso ditzakezu zure zerbitzu hornitzailearengandik (sareko zerbitzua). Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Hautatu **Menua > Mezularitza > Info mezuak** eta eskuragarri dauden aukeretatik.

Zerbitzu komandoak

Zerbitzu komandoak erabili zure zerbitzuaren hornitzaileari zerbitzuari buruzko kontsultak egiteko (USSD komandoak), sareko zerbitzuak aktibatzeke komandoak esaterako.

Zerbitzu kontsulta idazteko eta bidaltzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Zerb.-komand..** Xehetasunak eskuratzeko, jarri

harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

SIM mezuak

SIM mezuak zure SIM txartelean gordeta dauden testu mezu jakinak dira. Mezu horiek SIM txarteletik telefonoaren memoriara kopiatu edo eraman ditzakezu, baina ez alderantziz.

SIM mezuak irakurtzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Aukera > SIM mezuak**.

Ahots-mezuak

Ahozko postontzia harpidetza behar duen sare zerbitzu bat da. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Zure ahozko postontzira deitzeko, sakatu eta eutsi sakatuta **1**.

Zure ahozko postontziaren zenbakia editatzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Ahots mezuak > Ahots-deien mezuak > Ahots-postontzi. zkia..**

Mezuen ezarpenak

Menua > Mezularitza > Mezu- ezarpenak aukeratu eta hauetatik:

Ezarpen orokorrak — Gorde bidalitako mezuen kopiak zure gailuan, gainidatzi lehengo mezuak memoria betetzen bada eta ezarri mezuentzako beste hobespen batzuk.

Testu mezuak — Aktibatu mezuak bidaltzearen jakinarazpenak, ezarri mezu zentroak SMS eta SMS mezu elektronikoentzat, hautatu karaktere laguntza mota eta ezarri testu mezuentzako beste hobespen batzuk.

Multim. mezuak — Aktibatu mezuak bidaltzearen jakinarazpenak, ezarri multimedia mezuen itxura, aktibatu

multimedia mezuak eta iragarkiak jasotzeko aukera eta ezarri multimedia mezuentzako beste hobespen batzuk.

E-mail mezuak — Aktibatu posta elektronikoa hartzeko aukera, ezarri mezu elektronikoa irudien neurria eta ezarri posta elektronikoaentzako beste hobespen batzuk.

Zerbitzu mezuak — Aktibatu zerbitzu mezuak eta ezarri zerbitzu mezuentzako beste hobespen batzuk ere.

Posta elektronikoa eta istanteko mezularitza

Konfiguratu telefonoa zure posta-kontutik mezu elektronikoa jasotzeko eta bidaltzeko, edo zure istanteko mezularitzako (IM) komunitatean txateatzeko.

Telefonoak Nokia Mezularitza Zerbitzua (NMS) edo ohiko Nokia Mail eta Nokia IM onar ditzake, herrialdearen arabera. Erabiltzen ari den mezularitza-sistema egiaztatzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Gehiago > E-maila**.

NOKIA

pantailaren goiko aldean agertzen bada, Nokia Mezularitza Zerbitzua erabiltzen ari zara. Ikus "[Nokia mezularitza IM](#)", [20.](#) orr. eta "[Nokia mezularitzako posta](#)", [19.](#) orr.

Bestela, ikus "[Nokia IM](#)", [23.](#) orr. eta "[Nokia Mail](#)", [21.](#) orr.

Nokia mezularitzako posta

Sartu hornitzaile ezberdinak dituzten zure posta kontuetara mugikorrekin posta irakurri, idatzi eta bidaltzeko.

Posta erabiltzeko posta kontu bat izan behar duzu. Posta konturik ez baduzu,

sortu bat Ovi zerbitzuan. Menuak ezberdinak dira posta hornitzailearen arabera.

Konfiguratu posta elektronikoa

Lehendik dagoen posta elektronikoko kontu batean erregistratu zaitzake edo Ovi posta elektronikoko kontu berri bat konfiguratu dezakezu.

Hautatu **Menua > Mezularitza > Gehiago > E-maila**.

Hasi zure posta elektronikoko kontua erabiltzen

- 1 Hautatu zure posta elektronikoa erabiltzeko zerbitzu-hornitzailea.
- 2 Idatzi zure kontuaren ID eta pasahitza.
- 3 Hautatu **Gogoratu pasahitza** posta elektronikokoan sartzen zarenean pasahitza eskatzearren aukera desgaitzeko.
- 4 Hautatu **Sartu**.

Beste posta elektronikoko kontu batean erregistratzeko, hautatu **Gehitu kontua**.

Konfiguratu Ovi posta elektronikoa

Posta elektronikoko kontu bat baduzu, Nokia kontu bat sor dezakezu, Ovi posta elektronikoko zerbitzua barne.

- 1 Hautatu **Erreg. Ovi-ko postan**.
- 2 Jarraitu pantailako jarraibideei.

Zure Nokia kontua sortutakoan, Ovi posta elektronikoko zerbitzua erabiltzen eta posta bidaltzen eta jasotzen has zaitzake. Beste Ovi zerbitzu batzuetan erregistratzeko ere erabil dezakezu kontua; hala nola, berehalako mezuen zerbitzua. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi honako gunea: www.ovi.com.

Irakurri, sortu eta bidali mezu elektronikoa

Hautatu **Menua** > **Mezularitza** > **Gehiago** > **E-maila** eta posta kontu bat.

Irakurri mezu elektronikoa eta erantzun

- 1 Hautatu mezu elektronikoa bat eta **Ireki**.
- 2 Erabili nabigazio-tekla mezu elektronikoa osoa ikusteko.
- 3 Mezu elektronikoa bati erantzuteko edo mezua birbidaltzeko, hautatu **Aukerak**.

Ikusi eta gorde eranskinak

Eranskinak dituzten posta elektronikoa, irudiak erantsita dituztenak, esaterako, klip itxurako ikono bat izaten dute. Litekeena da eranskin batzuk zure gailuarekin bateragarriak ez izatea eta zure gailuan ez bistaratzea.

- 1 Zabalduta eranskinen zerrenda.
- 2 Hautatu eranskin bat eta **Ikusi**.
- 3 Eranskinak zure gailuan gordetzeko, hautatu **Gorde**.

Sortu eta bidali mezu elektronikoa

- 1 Hautatu **Aukerak** > **Idatzi**.
- 2 Idatzi hartzailearen helbide elektronikoa, gaia eta zure mezua.
- 3 Mezu elektronikoa fitxategi bat eransteko, hautatu **Aukerak** > **Erantsi fitxategia**.
- 4 Mezu elektronikoa eransteko irudi bat kapturatzeko, hautatu **Aukerak** > **Erantsi irudi berria**.
- 5 Mezu elektronikoa bidaltzeko, hautatu **Bidali**.

Itxi posta elektronikoa aplikazioa

Hautatu **Irten**.

Sartu berehalako mezuetara zure posta elektronikoko kontutik

Posta elektronikoa zure zerbitzu-hornitzaile batzuek zure posta elektronikoko kontutik berehalako mezu kontura zuzenean sartzeko aukera ematen dizute.

Mezu elektronikoa bat idazten duzunean zure hornitzailearen berehalako mezu zerbitzuan erregistratzeko, hautatu **Aukerak** eta zure berehalako mezu zerbitzua.

Nokia mezularitza IM

Istanteko mezularitzak (IM) zure gailuaren bidez sarean dauden beste erabiltzaileekin txateatzeko aukera ematen ditu.

Zure kontua erabil dezakezu zure gailuak onartutako IM komunitateekin.

IM zerbitzu batera erregistratua ez bazaude, IM kontu bat sor dezakezu onartutako IM zerbitzu batekin, ordainagailua edo gailua erabilia. Menuak ezberdinak dira IM zerbitzuaren arabera.

Berehalako mezu zerbitzuak

Hasi sortuta duzun berehalako mezu kontu bat erabiltzen

- 1 Hautatu **Menua** > **Mezularitza** > **Gehiago** > **Berehal. mezuak**.
- 2 Hautatu berehalako mezu zerbitzu bat.
- 3 Idatzi zure kontuaren ID eta pasahitza.
- 4 Jarraitu pantailako jarraibideei.

Sortu Nokia kontu berri bat

Zure ordainagailua erabilia posta elektronikoa eta berehalako mezu zerbitzuak dituen Nokia kontu bat sortzeko, sartu honako gunean:

www.ovi.com. Zure gailua erabilia kontu bat sortzeko, egin ondorengoa:

- 1 Hautatu **Menua > Mezularitza > Gehiago > E-maila**.
- 2 Jarraitu pantailako jarraibideei.

Erabili berehalako mezuen zerbitzuak aldi berean

- 1 Berehalako mezuen ikuspegi nagusira itzultzeko, hautatu **Hasiera** edozein berehalako mezuen zerbitzutik.
- 2 Hautatu berehalako mezuen zerbitzu bat eta erregistratu.
- 3 Berehalako mezuen zerbitzu batetik bestera joateko, joan ezkerrera edo eskuinera kontaktuen zerrendan.

Trukatu mezuak

Hautatu **Menua > Mezularitza > Gehiago > Berehal. mezuak**.

Bidali berehalako mezu bat

- 1 Hautatu berehalako mezuen zerbitzu bat.
- 2 Hautatu kontaktu bat kontaktuen zerrendatik.
Elkarrizketa bakoitza elkarrizketa ikuspegiko fitxa batean dago.
- 3 Idatzi zure mezua testuaren laukian, pantailaren beheko aldean.
- 4 Hautatu **Bidali**.

Jaso mezuak

Zu zauden elkarrizketara mezu berri bat iristen denean, txat historiaren amaieran agertuko da mezua. Beste elkarrizketa batera mezu berri bat iristen denean, elkarrizketa horri dagokion fitxa piztu eta itzali egingo da. Elkarrizketa batetik bestera joateko, egin honakoa:

- 1 Igo elkarrizketen fitxetara.

- 2 Joan ezkerrera edo eskuinera elkarrizketa bat irekitzeko.

Beste komunitate batetik mezu berri bat iristen denean, goiko edo beheko ertzean adieraziko da.

Igo eta hautatu **Aldatu** edo **Aukeratu**.

Jakinarazpenen ezarpenak

Aplikazioa erabiltzen ari ez zarenean ere, iritsitako mezuen berri emango zaizu. Jakinarazpenen ezarpenak aldatzeko, egin honakoa:

- 1 Berehalako mezuen ikuspegi nagusian, hautatu **Aukera > IM ezarpenak**.
- 2 Hautatu jakinarazpen mota bat eta **Gorde**.

Atera berehalako mezuen aplikaziotik

Berehalako mezuen aplikaziotik irteten zarenean, berehalako mezuen zerbitzuetan erregistratuta jarraituko duzu. Zure saioak aktibatuta egongo dira denbora batez, zure zerbitzuaren harpidetzaren arabera. Berehalako mezuen aplikazioa atzeko planoan abian dagoenean, beste aplikazio batzuk zabaldu ditzakezu eta berehalako zerbitzuen aplikazioa berriro erabili ahal izango duzu berriro erregistratu beharrik gabe.

Itxi berehalako mezuen leihoa

Joan berehalako mezuen ikuspegi nagusira eta hautatu **Irten**.

Irten berehalako mezuen aplikaziotik

Hautatu **Aukera > Amaitu saioa**.
Elkarrizketa guztiak itxi egiten dira.

Nokia Mail

Sartu zure posta-kontuan telefonoarekin mezu elektronikoak irakurtzeko, idazteko

eta bidaltzeko. Posta elektronikoaren aplikazioa eta SMS posta-funtzioa ez dira gauza bera.

Posta erabiltzeko gai izan aurretik, posta zerbitzu-hornitzaile baten posta-kontu bat izan behar duzu. Erabilgarritasunari eta ezarpenei buruzko informazioa jasotzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. Posta elektronikoa konfiguratzeko ezarpenak konfigurazio-mezu gisa jaso ditzakezu.

Postaren konfigurazio-laguntzailea

Postaren konfigurazio-laguntzailea automatikoki irekitzen da telefonoak posta elektronikoaren ezarpenik ez badu. Beste posta-kontu bat gehitzeko konfigurazio-laguntzailea irekitzeko, hautatu **Menua > Mezularitza** eta uneko posta-kontua. Hautatu **Aukera > Gehitu postontzia**. Halaber, posta-kontu berria sor dezakezu Ovi-n dohainik. Jarraitu argibideak.

Mezu elektronikoak idatzi eta bidali

Mezu elektronikoa posta-zerbitzura konektatu aurretik idatz dezakezu.

- 1 Hautatu **Menua > Mezularitza** eta **Mezua sortu > Mezu elektr..**
- 2 Idatzi hartzailearen helbide elektronikoa, gaia eta mezua. Fitxategi bat eransteko, hautatu **Aukera > Sartu**.
- 3 Posta-kontu bat baino gehiago zehaztu badira, hautatu zein kontutik bidali nahi duzun mezu elektronikoa.
- 4 Hautatu **Bidali**.

Mezu elektronikoak irakurri eta horiei erantzun

Garrantzitsua: Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuek asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola

ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

Hautatu **Menua > Mezularitza**.

Mezu elektronikoaren goiburua deskargatu

Hautatu zure posta-kontua.

Posta elektronikoa eta eranskinak deskargatu

Hautatu mezu elektronikoa eta **Ireki** edo **Berresk..**

Mezu elektronikoari erantzun edo horiek birbidali

Aukeratu **Aukera > Erantzun** edo **Aurrera**.

Zure posta-kontutik deskonektatu

Hautatu **Aukera > Deskonektatu**. Posta-konturako konexioa automatikoki amaituko da zenbait denboraz erabiltzen ez bada.

Mezu elektroniko berrien jakinarazpenak

Telefonoak automatikoki egiazta dezakezu zure posta-kontua nahi duzun maiztasuna ezarriz, eta jakinarazpenak jaso ditzakezu mezu elektroniko berriak jasotzean.

Hautatu **Menua > Mezularitza** eta **Gehiago**.

- 1 Hautatu **Mezu-ezarpenak > Posta-ezarp.ak > Editatu postontziak**.
- 2 Hautatu zure posta-kontua, **Deskarga. ezarpenak** eta aukera hauetariko bat:

Postzi. egune.-maizt. — Ezarri telefonoak posta-kontua egiaztatzea nahi duzun maiztasuna.

Berresk. automatikoa

— Berreskuratu zure posta-kontuko mezu berriak automatikoki.

- 3 Mezu elektronikoen berrien jakinarazpenak gaitzeko, hautatu **Mezu-ezarpenak > Posta-ezarpenak > E-mail jakzp. berria.**

Nokia IM

Istanteko mezularitzaren (IM) sareko zerbitzuarekin sarean dauden erabiltzaileei mezu laburrak bidaltzeko aukera duzu. Zerbitzu batera harpidetu eta erabili nahi duzun IM zerbitzuan erregistratu behar duzu.

Erabilgarritasunari, prezioari eta jarraibideei buruzko informazioa lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin. Menuak ezberdinak dira IM zerbitzu hornitzailearen arabera.

Zerbitzura konektatzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Berehal. mezuak** eta jarraitu jarraibideei.


Kontaktuak

Izenak eta telefono zenbakiak kontaktu gisa telefonoaren memorian eta SIM memoria-txartelan gorde ditzakezu, gero haiek bilatuz eta berreskuratuz, kontaktuei dei bat egiteko edo mezu bat bidaltzeko.

Kudeatu kontaktuak**Aukeratu kontaktuak gordetzeko memoria**

Telefonoaren memorian kontaktuen xehetasunak gorde daitezke, hala nola, telefono zenbaki bat baino gehiago eta testu elementuak. Kontaktua batzuetan irudia, tonua edo bideo bat ere gorde ditzakezu.


SIM txartelean kontaktu bakoitzaren izena eta telefono zenbaki bakarra gorde

ditzakezu. SIM txartelean gordetako kontaktuak  adierazlea dute.

Hautatu **Menua > Kontaktuak > Ezarpenak > Memoria erabiltzen. Telefonoa eta SIM** hautatzean, kontaktuak telefonoaren memorian gordetzen dira.

Gorde izenak eta zenbakiak

Izena eta telefono zenbakiak gordetzeko, aukeratu **Menua > Kontaktuak > Gehitu berria.**

Gordetzen duzun lehen zenbakia automatikoki lehenesten da eta karratu batez inguratuta agertzen da (adibidez, ). Kontaktuetako izen bat aukeratzen duzunean (adibidez, deitzeko), zenbaki lehenetsia erabiltzen beste bat aukeratu ezean.

Bilatu kontaktuak

Aukeratu **Menua > Kontaktuak > Izenak**, eta arakatu kontaktuen zerrenda edo idatzi izenaren lehen hizkiak.

Gehitu eta editatu xehetasunak

Kontaktu bati xehetasunak gehitzeko edota aldatzeko, hautatu kontaktua eta **Xehet. > Aukera > Gehitu xehetasuna.**

Kopiatu edo mugitu kontaktuak

- 1 Aukeratu kopiatu edo mugitu nahi duzun kontaktua eta sakatu **Aukera > Markatu.**
- 2 Markatu gainerako kontaktuak eta aukeratu **Aukera > Kopia markatuta** edo **Mugitu markatuta.**

Kopiatu edo mugitu kontaktu guztiak
Menua > Kontaktuak > Kop. kontaktuak edo **Mug. kontaktuak** aukeratu.

Ezabatu kontaktuak

Aukeratu kontaktuak eta **Aukera** > **Kontaktua** ezetz.

Kontaktu guztiak ezabatzeko, aukeratu **Menua** > **Kontaktuak** > **Ezb. ktk. guztiak** > **Tel. memoriatik** edo **SIM txarteletik**.

Zenbaki bat, testu-elementu bat edota kontaktuari gehitutako irudi bat ezabatzeko, bilatu kontaktuak eta hautatu **Xehet.** Joan nahi duzun xehetasunera, hautatu **Aukera** > **Ezabatu** eta nahi duzun aukera.

Sortu kontaktuen talde bat

Sailkatu kontaktuak taldeetan, bakoitza bere tonu eta irudiarekin.

- 1 **Menua** > **Kontaktuak** > **Taldeak** aukeratu.
- 2 Talde bat sortzeko, aukeratu **Gehitu** edo **Aukera** > **Gehitu talde berria**.
- 3 Idatzi talde baten izena, aukeratu irudia eta tonua, gehitu kontaktuak taldera eta aukeratu **Gorde**.
- 4 Taldeari kontaktuak gehitzeko, hautatu taldea eta **Ikusi** > **Gehitu**.

Bisita txartelak

Pertsona baten kontaktu informazioa bidali eta jaso dezakezu vCard estandarra onartzen duen gailu bateragarri bat erabiliz.

Bisita-txartel bat bidaltzeko, bilatu kontaktuak eta hautatu **Xehet.** > **Aukera** > **Bidali bisita-txartela**.

Bisita txartel bat jasotzean, hautatu **Erakutsi** > **Gorde** bisita txartela telefonoaren memorian gordetzeko.

Markazio lasterbideak esleitzea

Lasterbideak eratu telefono zenbakiei 2tik 9ra arteko zenbaki tekla esleituz.

- 1 Hautatu **Menua** > **Kontaktuak** > **Mark. lasterrak**, eta joan zenbaki tekla batera.
- 2 Hautatu **Esleitu**, edo, zenbakiak jada tekla esleituta badu, hautatu **Aukera** > **Aldatu**.
- 3 Zenbaki bat idatzi edo kontaktu bat bilatu.

Dei erregistroa

Dei, mezu, datu eta sinkronizazioei buruzko informazioa ikusteko, hautatu **Menua** > **Erregistroa** eta nahi duzun elementua.

Oharra: Zerbitzu-hornitzaileak igortzen dizun dei eta zerbitzuen faktura aldatu egin daiteke, sarearen ezaugarrien, fakturen biribilketen, zergen eta abarren arabera.

Kokaleku erregistroa

Baliteke sareak kokapen eskaera bidaltzea (sare zerbitzua). Harpidetza burutzeko eta kokapen informazioa bidaltzea onartzeko, jarri harremanetan zure zerbitzuaren hornitzailearekin.

Kokapen eskaera onartzeko edo ukatzeko, hautatu **Onartu** ala **Ezetsi**. Eskaera galduz gero, telefonoak automatikoki onartuko du edo ukatuko du zuk zerbitzu hornitzailearekin itundutakoaren arabera.

Informazioa azken 10 pribatutasun jakinarazpen eta eskaeren artean, hautatu **Menua** > **Erregistroa** > **Kokapena** > **Kokapen-loga**.

Konektibitatea

Zure telefonoak beste telefonoekin konektatzeko eta datuak bidaltzeko eta jasotzeko hainbat funtzio ditu.

Haririk gabeko Bluetooth teknologia

Bluetooth teknologiarekin telefonoa 10 metroko (32 oineko) erradioan dauden gailuetara konekta dezakezu irratihinakin erabiliz.

Telefonoa Bluetooth zehaztapenarekin bateragarria da 2.1 + EDR, eta ondorengo profil hauek onartzen ditu: audio banaketa aurreratua, urruneko audio/bideo kontrola, deien sareak, fitxategi transferentzia, sarbide orokorra, audio/bideo banaketa orokorra, objektu truke orokorra, eskulibrea, entzungailua, object push, gida sarbidea, SIM sarbidea, zerbitzu detektatze aplikazioa eta serie ataka. Bluetooth teknologia onartzen duten beste gailu batzuekiko operatibitatea ziurtatzeko, modelo honetarako Nokia konpainiak onartutako osagarri homologatuak erabili behar dira bakarrik. Beste gailuen fabrikatzaileekin egiaztatu gailu horiek telefono honekin bateragarriak ote diren.

Bluetooth teknologia darabilten funtzioek batera indar gehiago behar dute eta, beraz, bateriaren iraupena murrizten dute.

Hari gabeko telefonoa urruneko SIM moduan egonez gero, osagarri bateragarri bakarra, autorako kita esate baterako, erabil dezakezu deiak egin edo jasotzeko.

Modu horretan dagoen bitartean, telefonoak ezin izango du deirik egin, programatutako larrialdiko zenbakietara izan ezik.

Zure telefonotik deitzeko, urruneko SIM modutik atera behar duzu lehendabizi. Telefonoa blokeatuta badago, aurrena desblokeatzeko kodea sartu behar duzu.

Bluetooth konexioa ezartzea

- 1 Hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Konektibitatea** > **Bluetootha**.
- 2 Hautatu **Nire telefonoaren iz.** eta idatzi zure telefonoarentzako izen bat.
- 3 Bluetootha aktibatzeko, aukeratu **Bluetooth** > **Piztuta**. ✖ ikurrak Bluetootha aktibatuta dagoela adierazten du.
- 4 Telefonoa audio-osagarri batera konektatzeko, hautatu **Konekt. audio-osag.** eta osagarria.
- 5 Telefonoa bere tartean dagoen Bluetooth gailu batekin parekatzeko, hautatu **Gailu parekatuak** > **Gailu berria gehitu**.
- 6 Joan aurkitutako gailu batera eta aukeratu **Gehitu**.
- 7 Idatzi pasakodea (gehienez 16 karaktere) telefonoan eta baimendu konexioa beste Bluetooth gailuan.

Telefonoa ezkutuko moduan erabiliz, software kaltegarria saihesteko aukera gehiago daude. Ez onartu Bluetooth konexioa konfiantzazko iturrietatik ez baldin badator. Beste aukera bat Bluetooth funtzioa desaktibatzea izan daiteke. Honek ez die telefonoaren gainerako funtzioei eragiten.

Ordenagailua Internetera konektatzea

Bluetooth teknologia erabil dezakezu zure ordenagailu bateragarria Internetera konektatzeko. Telefonoak Internetera konektatzeko gai izan behar du (sareko zerbitzua) eta zure ordenagailuak Bluetooth teknologia onartu behar du. Telefonoaren sareko sargunera (NAP) konektatu eta telefonoa ordenagailuarekin parekatu ondoren, telefonoak automatikoki Interneteko datu-pakete konexioa ezartzen du.

Pakete datuak

Pakete bidezko irratzi zerbitzu orokorra (GPRS) zerbitzu sare bat da. Horren bidez, sakeleko telefonoek aukera dute Internet protokoloan (IP) oinarritutako sare baten bidez datuak bidaltzeko eta jasotzeko.

Zerbitzua nola erabili zehazteko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektibitatea > Pakete datuak > Fardel-datuen konex.** eta aukera hauetako bat:

Behar denean — pakete datu konexioa gaitua bezala ezartzeko aplikazio batek eskatzerakoan. Konexioa aplikazioa ixtean itzaliko da.

Beti sarean — telefonoa piztean pakete datuko sare batera telefonoa automatikoki konekta dadin ezartzeko

Zure telefonoa modem gisa erabili dezakezu Bluetooth teknologia edo USB datu kable bat erabiltzen duen ordenagailu bateragarri batera konektatuz. Xehetasunak eskuratzeko, ikusi Nokia PC Suite dokumentazioa. [Ikus "Nokia laguntza"8.](#)

USB datu kablea

USB datu kablea erabil dezakezu telefonoaren eta PC bateragarri baten (PictBridge erabiltzeko aukera izan behar du) artean datuak transferitzeko.

Telefonoa datu transferentziarako edo irudiak inprimatzeko aktibatzeko, konektatu datu kablea eta hautatu modua:

Konexioan galde — zure telefonoa ezartzeko konexioa gaitu behar den galdetzeko

PC Suite — kablea PC Suite softwareerako erabiltzeko

Inprim. eta multim. — telefonoa PictBridge bateragarria den inprimagailu batekin edo ordenagailu batekin erabiltzeko

Datuak gordetzea — Nokia softwarea ez duen eta datuak gordetzeko telefonoa erabiltzen duen ordenagailu bati konektatzeko

USB modua aldatzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektibitatea > USB datu kablea** eta nahi duzun USB modua.

Sinkronizazioa eta babeskopiak

Aukeratu **Menua > Ezarpenak > Sink. eta s. kopia** eta ondorengoetako bat:

Tel. aldaketa — Sinkronizatu edo kopiatu hautatutako datuak zure telefonoa eta beste baten artean Bluetooth teknologia erabiliz.

Seg. kopia egin — Sortu hautatutako datuen babeskopia bat.

S. kopia berresk. — Hautatu gordetako babeskopia-artxibategi bat eta telefonoan berreskuratu. Hautatu **Aukera > Xehetasunak** aukeratutako babeskopiaren xehetasunak ikusteko.

Datu-transfer — Sinkronizatu eta kopiatu datuak beste telefono, ordenagailu edo sareko zerbitzari batekin (sareko zerbitzua).

Nokia PC Suite

Nokia PC Suite erabiliz, zure telefonoaren eta PC bateragarri baten artean edo urruneko internet zerbitzari baten artean (sareko zerbitzua) zure musika kudeatu dezakezu, eta kontaktuak, egutegia, oharrak eta egitekoen oharrak sinkronizatu ditzakezu. Informazio gehiago eta PC Suite aurkituko duzu Nokiaren webgunean. [Ikus "Nokia laguntza"8.](#)

Ezarpenak

Profilak

Zure telefonoak zenbait ezarpen talde ditu (profilak esaten zaie). Profil

horientzat telefono tonuak pertsonalizatu daitezke, gertaeren eta inguruneen arabera.

Hautatu **Menua > Ezarpinak > Profilak**, nahi duzun profila eta aukera hauetako bat:

Aktibatu — hautatutako profila aktibatzeko

Pertsonalizatu — profilaren ezarpinak aldatzeko

Kalkulatuta — profila denbora epe zehatz bateraino aktibo egoteko. Profil horretarako ezarritako denbora amaitzean, aurreko profila (tenporizatu gabea) aktibatzen da.

Gaiak

Gaiak zure telefonoa pertsonalizatzeko elementuak dituzte.

Hautatu **Menua > Ezarpinak > Gaiak** eta aukera hauetako bat:

Gaia aukeratuta — Ireki Gaiak karpeta, eta hautatu gai bat.

Gaiaren deskarg. — Gai gehiago deskargatzeko esteken zerranda ireki.

Tonuak

Hautaturiko profil aktiboaren tonu ezarpinak alda ditzakezu.

Hautatu **Menua > Ezarpinak > Tonuak**. Ezarpen berberak **Profilak** menuan aurki ditzakezu.

Argiak

Telefonoaren funtzio ezberdinei lotutako argi efektuak aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Menua > Ezarpinak > Argiak**.

Pantaila

Aukeratu **Menua > Ezarpinak > Pantaila** eta ondorengoetako bat:

Horma papera — hasiera pantailaren hondoan irudi bat gehitzeko

Hasierako pantaila — hasiera pantaila aktibatzeko, antolatzeko eta pertsonalizatzeko.

Has.-pant. letra-kol. — hasiera pantailako hizki mota eta kolorea aukeratzeko.

Nabi. teklen ikonoak — korritze tekla ikonoak bistartzeko hasierako pantailan

Jakinarazp.-xehetas. — dei-galduen eta jasotako mezuen xehetasunak ikusteko.

Pantaila babeslea — pantaila-babes bat sortzeko eta ezartzeko.

Letra tamaina — mezu, kontaktu eta web orrietako hizki tamaina zehazteko.

Operadorearen logoa — operadorearen logoa ikusteko.

Telefono info bistan — sare zelularreko IDa erakusteko, sarean eskuragarri badago.

Data eta ordua

Erloju mota, ordua, ordu zona edo data aldatzeko, hautatu **Menua > Ezarpinak > Data eta ordua**.

Beste ordu zona batera bidaiatzerakoan, hautatu **Menua > Ezarpinak > Data eta ordua > Egun- eta ordu-ezarp.** > **Ordu-eremua**; eta ezkerretara edo eskuinetara joan zure kokapenari dagokion ordu zona hautatzeko. Ordua eta data ordu zonaren arabera ezartzen dira eta horren bidez zure telefonoak jasotako testu eta multimedia mezuen eskuratze ordu zuzena erakutsi dezake.

Adibidez, GMT -5 New Yorkeko (EEBB) ordu zona da, Greenwich, Londonetik (UK) 5 ordu mendebaldera.

Nire lasterbideak

Lasterbide pertsonales bidez erraz joango zara telefonean maiz erabilitako funtzioetara.

Ezkerreko eta eskuineko hautatze teklak

Ezkerreko edo eskuineko hautatze teklari esleitutako funtzioa aldatzeko, hautatu **Menua** > **Ezarpenak** > **Nire lasterbid.** > **Ezkerreko auk. tekla** edo **Eskuin aukerak. tekla** eta nahi duzun funtzioa.

Hasiera pantailan, ezkerreko hautatze tekla **Hona** bada, funtzioa aktibatzeko, hautatu **Hona** > **Aukera** eta aukera hauetariko bat:

Hautatu aukerak — funtzio bat gehitzeko edo ezabatzeko

Antolatu — funtzioak berrantolatzeko

Lasterbide gehiago

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** > **Nire lasterbid.** eta ondorengoetako bat:

Nabigazio tekla — nabigazio teklak aurrez ezarrita dituen funtzioei gehiago esleitzeko.

Hasier. pant. gako — nabigazio teklaren norabidea zehazteko, hasiera pantaila aktiba dezan.

Deitu

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** > **Deia** eta ondorengoetako bat:

Dei desbiderapena — jasotako deiak desbideratzeko (sareko zerbitzua). Agian ezingo dituzu deiak desbideratu debeku funtzioaren bat aktibatuta baduzu. [Ikus "Segurtasuna"30.](#)

Edozein tekl. erantz. — edozein tekla laburki sakatuta deiak hartzeko, pizteko tekla eta aukeraketa teklak izan ezik.

Autom. birmarkatu — dei batek huts egiten badu automatikoki zenbakia berriro markatzeko. Telefonoa 10 bider saiatzan da deia egiten.

Audio hobekuntza — ahotsaren ulermena hobetzeko, bereziki soinu handiko inguruetan.

Markatze bizkorra — teklei (2-9) esleitutako telefono zenbakietara tekla sakatuta edukita deitzeko.

Itxaron deia — deia bat abian duzunean beste dei bat jaso duzunaren jakinarazpena jasotzeko (sareko zerbitzua)

Deiaren iraup. bistar. — abian den deiaren iraupena ikusteko.

Laburp. deiaren ond. — dei bakoitzaren ondoren gutxi gorabeherako iraupena ikusteko.

Bidali nire dei-eg. IDA — deitzen ari zaren pertsonari zure telefono zenbakia erakusteko (sareko zerbitzua). Zerbitzu-hornitzailearekin adostutako ezarpena erabiltzeko, aukeratu **Sareak ezarrita.**

Irteera-deiaren linea — deiak egiteko linea aukeratzeko, zure SIM txartelak linea bat baino gehiago baditu (sareko zerbitzua)

Telefonoa

Aukeratu **Menua** > **Ezarpenak** > **Telefonoa** eta ondorengoetako bat:

Hizkuntza ezarpenak — telefonoaren hizkuntza zehazteko, aukeratu **Tel.aren hizkuntza** eta hizkuntza bat. Telefonoaren hizkuntza SIM txarteleko informazioaren arabera zehazteko, aukeratu **Tel.aren hizkuntza** > **Automatikoa.**

Memoria egoera — memoriaren egoera ikusteko.

Tekl.-blokeo automat. — hasiera pantailan dagoela denbora jakin bat

igarotakoan funtziorik erabili ez bada telefonoa automatikoki blokeatzeko

Segurt. tekl.-babeslea — teklatura desblokeatzerakoan segurtasun kodea eskatzeko.

Sensor-ezarpenak — tapping funtzioa aktibatzeke eta doitzeko

Ahots-azterketa — [Ikus "Ahots-komandoak"29.](#)

Hegaldi kontsulta — telefonoa pizterakoan hegaldi modua erabili nahi den galdetzeko. Hegaldi moduan irrati-konexio guztiak desaktibatzen dira.

Telef.-eguneratzeak — zerbitzu-hornitzailearen eguneratzeak jasotzeko (sareko zerbitzua). Telefonoaren arabera, agian aukera hau ez da eskuragarri egongo. [Ikus "Airean zehar dauden software eguneratzeak"30.](#)

Sare-modua — UMTS eta GSM sareak batera erabiltzeko. Ezin duzu aukera hau erabili dei bat aktibo dagoenean.

Operadore-aukerake. — tokiko sare zelular eskuragarri bat aukeratzeko.

Lgntza.-testuen aktib. — telefonoan laguntza-testua erakutsi ala ez aukeratzeko.


Abian jartze tonua — telefonoa pizterakoan tonu bat entzuteko.

Ahots-komandoak

Deitu kontaktuei edo erabili telefonoa ahots-komandoen bidez.

Ahots-komandoak hizkuntzaren arabera dira. Hizkuntza aukeratzeko, aukeratu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Hizkuntza ezarpenak > Tel.aren hizkuntza** eta zure hizkuntza.

Ahots-azterketak zure ahotsa ezagut dezan, aukeratu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Ahots-azterketa > Ahots-azt. praktikatu.**

Funtzio baten ahots-komandoa aktibatzeke, aukeratu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Ahots-azterketa > Ahots-komandoak** ezaugarria eta funtzioa.  ikurrak ahots-komandoa aktibatuta dagoela adierazten du.

Ahots-komandoa aktibatzeke, aukeratu **Gehitu**. Aktibatutako ahots-komandoa erreproduzitzeko, aukeratu **Errepro..**

Ahots-komandoak erabiltzeko, ikus ["Ahots bidezko markatzea", 15.](#) orrialdean.

Ahots-komandoak kudeatzeko, joan funtzio batera eta aukeratu **Aukera** eta ondorengoetako bat:

Editatu edo **Ezabatu** — ahots-komandoaren izena aldatzeko edo desaktibatzeke.

Guztiak gehitu edo **Guztiak ezabatu** — funtzio guztien ahots-komandoak aktibatzeke edo desaktibatzeke.

Osagarriak

Menu hau eta bertako aukerak telefonoa osagarri batera konektatuta dagoenean bakarrik ikus daitezke.

Menua > Ezarpenak > Osagarriak aukeratu. Aukeratu osagarria eta dagokion aukera, osagarriaren arabera.

Konfigurazioa

Hainbat zerbitzutarako beharrezkoak diren ezarpenak konfiguratu ditzakezu telefonoan. Ezarpen horiek zerbitzu-hornitzaileak ere bidal diezazkizuke. [Ikus "Konfigurazio ezarpenen zerbitzua"7.](#)

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Konfigurazioa** eta aukera hauetako bat:

Konfig.-ezarp. lehnts. — telefonoan gordetako zerbitzu-hornitzaileak

ikusteko eta zerbitzu-hornitzaile lehenetsia zehazteko

Akt. lehtsi. aplik. guz. — aplikazio bateragarrien konfigurazio-ezarpen lehenetsiak aktibatzeke

Sargune gustukoena — gordetako sarguneak ikusteko

Gailu-kudeatz. ezarp. — telefonoak software-eguneratzeak jasotzea baimentzeko edo debekatzeko.

Telefonoaren arabera, agian aukera hau ez da eskuragarri egongo. [Ikus "Airean zehar dauden software eguneratzeak"30.](#)

Konfig.-ezrp. pertson. — zerbitzu desberdinen kontu pertsonalak eskuz gehitzeko eta haiek aktibatzeke edo ezabatzeke. Kontu-pertsonal berri bat gehitzeko, hautatu **Ber. gehi.**, edo **Aukera > Gehitu berria.** Hautatu zerbitzu-mota eta sartu derrigorrezko parametroak. Kontu-pertsonal berri bat gehitzeko, joan kontura eta hautatu **Aukera > Aktibatu.**

Airean zehar dauden software eguneratzeak

Zure zerbitzu hornitzaileak softwareko eguneratzeak zuzenean zure telefonora igor ditzake airean zehar (sareko zerbitzua). Zure telefonoaren arabera, baliteke aukera hau eskuragarri ez izatea.

Software eguneratzeak deskargatzean datu kantitate handiak transferi daitezke (sareko zerbitzua).

Eguneratzea hasi aurretik behar adina bateria duzula egiaztatu edo kargagailura konektatu.

Abisua:

Softwarearen bertsio berriak instalatzerakoan, ezin da gailua erabili, ezta larrialdi deietarako ere, instalazioa bukatu eta gailua berrabiarazi arte. Egiaztatu datuen segurtasun kopiak egiten dituzula softwarea eguneratu baino lehen.

Software eguneratzeen ezarpenak

Zure telefonoaren arabera, baliteke aukera hau eskuragarri ez izatea.

Software eta konfigurazio eguneratzeak onartzeko edo ez, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konfigurazioa > Gailu-kudeatz. ezarp.** > **Horn. softw. eguner.**

Software eguneratze bat eskatu

- 1 Hautatu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Telef.-eguneratzeak** zure zerbitzu hornitzailetik eskura ditzakezun telefono softwareko eguneratzeak eskatzeko.
- 2 Hautatu **Uneko softw. eheta.** uneko software bertsioa ikusteko eta eguneratzea behar den begiratzeko.
- 3 Hautatu **Desk. tel. softwarea** software eguneratze bat deskargatzeko eta instalatzeko. Jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei.
- 4 Instalazioa deskargatzea burutu eta gero bertan behera utzi bada, hautatu **Instal. softw.-eguner.** instalazioa hasteko.

Softwarea eguneratzeak zenbait minutu iraun dezake. Instalatzean arazorik izanez gero, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

Segurtasuna

Deiak murrizten dituzten segurtasun-aukerak gaituta egonda ere (deiak

blokeatzea, erabiltzaile talde itxia eta markatze finkoa, adibidez), telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitzea dago. Deiak blokeatzeko eta deiak desbideratzeko moduak ezin dira aldi berean gaituta eduki.

Aukeratu **Menua > Ezarpenak > Segurtasuna** eta ondorengoetako bat:

PIN kode eskaera edo **UPIN kode eskaera** — telefonoa pizten den bakoitzean PIN edo UPIN kodea eskatzeko. SIM batzuk ez dute PIN eskaera desaktibatzen uzten.

Dei-murritz. zerb. — hartzaile jakin batzuei deiak egitea edo haien deiak jasotzea galarazteko (sareko zerbitzua). Debeku pasahitza behar da.

Markatzea finkatuta — telefono jakin batzuetara deiak egitea galarazteko (SIM txartelak onartzen badu). Markatze finkatua aktibatuta dagoenean, GPRS konexioak desgaituta egoten dira testu-mezuak GPRS bidez bidaltzerakoan. Kasu honetan, mezu zentroaren zenbakia eta hartzailearen telefono zenbakia markatze finkatuaren zerrendan gehitu behar dira.

Erabiltz.-talde itxia — egin eta jaso ditzakezun deien telefono zenbakiak zehazteko (sareko zerbitzua).

Segurtasun maila — SIM txartel bat sartzen den bakoitzean segurtasun kodea eskatzeko, hautatu **Telefonoa**.

Sarbide kodeak — segurtasun kodea, PIN kodea, UPIN kodea, PIN2 kodea edo debeku pasahitza aldatzeko.

PIN2 kode eskaera — PIN2 kodea eskatu behar den ezartzeko PIN2 kodeak babestutako telefonoaren funtzio berezi bat erabiltzean. Zenbait SIM txartelak ez dute uzten kode eskaera desaktibatzen. Zure telefonoaren arabera, baliteke aukera hau eskuragarri ez izatea. Informazio gehiago jasotzeko, jarri

harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

Kodea erabiltzen — PIN kode mota zehazteko

Autorit.-ziurtagiriak edo **Erabiltz.-ziurtagiriak** — telefonoan deskargatutako autoritate eta erabiltzaileen ziurtagiriak ikusteko. [Ikus "Nabigatzailearen segurtasuna"37.](#)

Segurt.-modul. ezarp. — Segurt.-modul. xehet. ikusteko, aktibatu **Modulu PIN eskaera** eta aldatu modulu PINa eta saio hasiera PINa. [Ikus "Sarbide kodeak"6.](#)

Jatorrizko ezarpenak berreskuratzeko

Telefonoaren atorrizko ezarpenak berreskuratzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Berr. fabr. ezarp.** eta aukera hauetariko bat:

Berez. ezarp. soilik — Datu pertsonalak ezabatu gabe lehentasun ezarpen guztiak berrezartzeko

Guztiak berrezarri — Datu pertsonal guztiak ezabatuz lehentasun ezarpen guztiak berrezartzeko. Datu pertsonalak hurrengoak izan daitezke: kontaktuak, mezuak, media artxibategiak eta aktibazio kodeak.

Operadore menua

Webgune batean zure sare-operadoreak eskeinitako zerbitzuetara sartu. Informazio gehiago jasotzeko, jo ezazu zure sarearen operadorearengana. Operadoreak menu hau zerbitzu mezu baten bidez egunera dezake.

Galeria

Kudeatu argazkiak, bideoak, musika, gaiak, irudiak, tonuak, grabaketak eta jasotako fitxategiak. Fitxategi hauek telefonoaren memorian edo memoria

txartelean gordetzen dira eta karpetaan sailka daitezke.

Karpetak eta artxibategiak

- 1 Karpeta zerrenda ikusteko, hautatu **Menua > Galeria**.
- 2 Karpeta baten artxibategi zerrenda ikusteko, hautatu karpeta bat eta **Ireki**.
- 3 Artxibategi bat mugitzean memoria txartelaren karpetak ikusteko, joan memoria txartelara, eta sakatu korritze tekla eskuinerantz.

Irudiak inprimatu

Zure telefonoak Nokia XpressPrint onartzen du jpeg formatuan dauden irudiak inprimatzeko.

- 1 Zure telefona inprimagailu bateragarri bati konektatzeko, datu kable bat erabili edo Bluetooth erabiliz Bluetooth teknologia onartzen duen inprimagailu bati bidali. [Ikus "Haririk gabeko Bluetooth teknologia"25.](#)
- 2 Inprimatu nahi duzun irudia hautatu eta **Aukera > Inprimatu**.

Partekatu irudiak eta bideoak sarean

Partekatu irudiak eta bideoak sareko partekatze zerbitzu bateragarriekin.

Sareko partekatzea erabiltzeko, sareko partekatze zerbitzu batean izen eman behar duzu (sareko zerbitzua).

Irudi edo bideo bat sareko partekatze zerbitzu batean kargatzeko, aukeratu fitxategia galerian, sakatu **Aukera > Bidali > Webera kargatu** eta aukeratu sareko partekatze zerbitzua.

Sarean partekatzeari buruzko eta zerbitzu-hornitzaile bateragarriei buruzko informazio gehiagorako, ikus

Nokia produktuen laguntza orriak zure tokiko Nokia webgunean.

Kargatutako fitxategiak sareko partekatze zerbitzuaren webgunean ikus ditzakezu zure telefonoarekin. [Ikus "Kargatu sarean"37.](#)

Memoria txartela

Erabili memoria txartela multimedia fitxategiak gordetzeko, bideoklipak, abestiak, soinu fitxategiak, irudiak eta mezuak, esate baterako.

Telefonoak erabilitako edukia duen Galeria ataleko zenbait karpeta (adibidez, Gaiak) memoria txartelean gordeta egon daitezke.

Memoria txartela formateatzea

Hornitutako zenbait memoria txartel aurretik formateatu dira; beste batzuk, ordea, formateatu behar dira. Memoria txartela formateatzean, txarteleko datu guztiak betirako galduko dira.

- 1 Memoria txartela formateatzeko, hautatu **Menua > Galeria** edo **Aplikazioak**, memoria txartelaren karpeta eta **Aukera > Mem.-txart. aukerak > Formateatu mem.-txartela > Bai**.
- 2 Formateatutakoan, idatzi memoria txartelaren izena.

Memoria txartela blokeatzea

Baimenik gabeko erabilera saihesteko memoria txartelaren blokeorako pasahitza ezartzeko, hautatu memoria txartelaren karpeta eta **Aukera > Mem.-txart. aukerak > Ezarri pasahitza**.

Pasahitza telefonoan gordetzen da eta ez duzu zertan berriro idazterik memoria txartela telefono berean erabiliz gero. Memoria txartela beste telefono batean

erabili nahi izanez gero, pasahitza eskatuko zaizu.

Pasahitza ezabatzeko, hautatu **Aukera** > **Mem.-txart. aukerak** > **Ezabatu pasahitza**.

Memoria kontsumoa behatu

Datu talde ezberdinek erabiltzen duten memoria nahiz memoria txartelean software berria instalatzeko erabilgarri dagoen memoria egiaztatzeko, hautatu memoria txartela eta **Aukera** > **Xehetasunak**.

Media

Kamera eta bideoa

Atera argazkiak edo grabatu bideoak kamera bateratuarekin.

Atera argazki bat

Argazki bat ateratzeko, eduki sakatuta kamera-tekla edo, bideo-modua aktibatuta badago, joan ezkerrera edo eskuinera.

Irudi-moduan zooma erabiltzeko, joan ezkerrera edo eskuinera edo erabili bolumen-teklak.

Argazkiak ateratzeko, sakatu kamera-tekla. Argazkiak telefonoaren memorian gordetzen dira, edo memoria txartelean, eskuragarri bada.

Automatikoki fokatzeko, sakatu kamera-tekla erdiraino. Marko zuri bat bistaratzen da. Eszena fokatutakoan, markoa berde bihurtzen da. Argazkiak ateratzeko, sakatu kamera-tekla beheraino. Marko gorriak argazkia fokatu gabe dagoela adierazten du. Kasu horretan, askatu kamera-tekla, eta fokatu berriro.

Segurtasun distantzia bat manten ezazu flasha erabiltzerakoan. Ez erabili flasha pertsona edo animaliangandik hurbil. Ez

estali flasha argazkia ateratzen ari zaren bitartean.

Kameraren flasha erabiltzeko, hautatu **Aukera** > **Flasha** > **Aktibatu flasha**; edo argi-baldintza eskasetan flasha automatikoki aktibatzeko, hautatu **Automatikoa**.

Argazkiak atera bezain laster ikusteko, hautatu **Aukera** > **Ezarpenak** > **Irud. aurreikus. denb.** eta aurrebista-tartea. Aurrebista-tartean zehar beste argazki bat ateratzeko, hautatu **Atzera**. Argazkia beste gailu batera edo zerbitzu erabilgarri batera bidaltzeko, hautatu **Aukera** > **Bidali**.

Zure telefonoak 2.592 x 1.944 pixel pixeleko bereizmena duten irudiak onartzen ditu.

Grabatu bideoak

Bideo-modua aktibatzeko, eduki sakatuta kamera-tekla edo, argazki-modua aktibatuta badago, joan ezkerrera edo eskuinera.

Bideoa grabatzen hasteko, hautatu **Grabatu** edo sakatu kamera-tekla; grabaketa eteteko, hautatu **Etena** edo sakatu kamera-tekla; grabaketari berrekiteko, hautatu **Jarraitu** edo sakatu kamera-tekla; grabaketa gelditzeko, hautatu **Gelditu**.

Telefonoak gehienez 640 x 480 pixel bereizmena onartzen du bideoetarako eta bideoak telefonoaren memorian gordetzen ditu, edo memoria txartelean, eskuragarri bada.

Kamera eta bideo aukerak

Iragazki bat erabiltzeko, hautatu **Aukera** > **Efektuak**.

Kamera argiari egokitzeko, hautatu **Aukera** > **Zurien balantzea**.

Bestelako kamera eta bideo ezarpenak aldatzeko eta irudi eta bideo biltegitratzea hautatzeko, hautatu **Aukera** > **Ezarpenak**.

Multimedia erreproduzitzailea

Telefonoak multimedia erreproduzitzaile bat du abestiak entzuteko eta bideoak ikusteko. Telefonoaren memoriako edo memoria txarteleko Musika karpeta gordetako musika eta bideo fitxategiak automatikoki gehitzen dira musika liburutegira.

Multimedia erreproduzitzailea irekitzeko, aukeratu **Menua** > **Media** > **Multim.-jogailua**.

Musika menua

Sartu telefonoaren memorian edo memoria-txartelean gordetako musika- eta bideo-fitxategietan, deskargatu musika eta bideoak webetik edo erreproduzitu zuzenean bideoak sareko zerbitzari batetik (sareko zerbitzua).

Musika entzutea edo bideoak erreproduzitzea

Hautatu erabilgarri dauden karpeta fitxategiren bat eta **Errepro..**

Webetik fitxategiak deskargatzea

Hautatu **Aukera** > **Deskargak** eta deskargatzeko kokapena.

Fitxategiak gehitu ondoren musika-liburutegia eguneratzea

Aukeratu **Aukera** > **Eguneratu liburuteg..**

Erreproduzizio zerrenda bat sortu

- 1 Aukeratu **Errepr.-zerrd.ak** > **Sortu erreprod.-zerrenda** eta idatzi zerrendaren izena.
- 2 Gehitu abesti eta bideoak ikusten diren zerrendetatik.

- 3 Aukeratu **Eginda** zerrenda gordetzeko.

Streaming-zerbitzu bat konfiguratzea (sareko zerbitzua)

Zuzeneko erreproduziorako ezarpenak zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-mezu gisa jaso ditzakezu.

- 1 Aukeratu **Aukera** > **Deskargak** > **Streaming-ezarpenak** > **Konfigurazioa**.
- 2 Aukeratu zuzeneko erreproduziorako zerbitzu-hornitzailea, **Lehenetsia** edo **Konfig. pertsonala**.
- 3 Aukeratu **Kontua** eta zuzeneko erreproduziorako kontua konfigurazio ezarpen aktiboentzat.

Erreproduzitu abestiak

Bolumena aldatzeko, sakatu bolumen teklak.

Kontrolatu erreproduzitzailea pantailako tekla birtualekin.

Erreproduzitzen hasteko, aukeratu **▶**.

Erreproduzizioa eteteko, aukeratu **||**.

Hurrengo abestira joateko, aukeratu **▶▶**. Aurreko abestiaren hasierara itzultzeko, aukeratu **◀◀** bi bider.

Uneko abestia aurreratzeko, eduki sakatuta **▶▶▶**. Uneko abestia atzeratzeko, eduki sakatuta **◀◀◀**. Askatu tekla abestia erreproduzitzen jarraitu nahi duzun puntuan.

Musika menura joateko, aukeratu **≡**.

Uneko zerrendara joateko, aukeratu **(↶↷)**.

Multimedia erreproduzitzailearen menua ixteko eta musika atzean erreproduzitzen jarraitzeko, sakatu amaitzeko tekla.

Multimedia erreproduzitzailea geratzeko, eduki sakatuta amaitzeko tekla.

Aldatu multimedia erreproduzitzailearen itxura

Telefonoak hainbat gai ditu multimedia erreproduzitzailearen itxura aldatzeko.

Aukeratu **Menua > Media > Multim.-jogailua > Joan Multim.-jogl. > Aukera > Ezarpenak > Multim.-jogail. gaia** eta gaietako bat. Tekla birtualak gaiaren arabera aldatzen dira.

Irratia

Hautatu **Menua > Media > Irratia**.

Bolumen maila doitzeko, sakatu telefonoaren bolumen tekla.





Pantailako tekla grafikoak erabiltzeko, joan gora, behera, ezkerrera edo eskuinera.

Irratiaren menua ixteko eta irratia atzean erreproduzitzen jarraitzeko, sakatu amaitzeko tekla.

Irratia itzaltzeko, sakatu eta eutsi sakatuta amaitze tekla.

Bilatu irrati-kateak

Bilatu eta gorde irrati-kateak

- 1 Bilatzen hasteko, eduki sakatuta  edo . Irrati frekuentzia 0.05 MHz gora edo behera aldatzeko, sakatu laburki  edo .
- 2 Irrati-keta bat memoria batean gordetzeko, aukeratu **Aukera > Gorde irratia**.

- 3 Irrati-katearen izena idazteko, aukeratu **Aukera > Irratiak > Aukera > Berrizendatu**.



Aukera aukeratu eta hauetatik:

Irratiak bilatu — uneko kokapenean eskuragarri dauden kateak automatikoki bilatzeko.

Ezarri frekuentzia — irrati-kate jakin baten frekuentzia idatzeko.

Irratiak — gordetako irrati-kateen izena aldatzeko, berrantolatzeko edo ezabatzeko.

Aldatu irrati-kateak

Aukeratu  edo  edo sakatu irrati-kateak zerrendan duen zenbakia.

Irratiaren ezarpenak

Aukeratu eta honako hauetatik: **Aukera > Ezarpenak** eta aukera hauetariko bat:

RDSa — Hautatu irrati-datu sistemako datuak erakutsi behar diren ala ez.

Maiztasun automat. — Gaitu sintonizatutako katearen seinale hobereko frekuentziara automatikoki aldatzeko funtzioa (eskuragarri RDS aktibatuta dagoenean).

Irteera — Aldatu mono edo estereo moduen artean.




Irratiko gaia — Hautatu irratiko gaia.

Ahots grabagailua


Grabatu ahotsa, soinuak edo dei aktiboak eta gorde grabaketak Galeria atalean.

Menua > Media > Grabagailua aukeratu.


Grabagailua ezin da erabili datuen dei bat edo GPRS konexio bat aktibatuta dauden bitartean.

  edo  tekla grafikoak erabiltzeko, mugitu ezkerretara edo eskuinetara.


Grabatzen hastea

Hautatu  edo, dei batean, hautatu **Aukera** > **Grabatu**. Deiak grabatzen dituzun bitartean, deian parte hartzen duten alderdi guztiek soinu ahul bat entzungo dute.

Grabaketa etetea

Hautatu .

Grabaketa gelditzea

Hautatu . Grabaketak karpetako Galeria atalean gordeko dira grabaketak.

Azken grabaketa erreproduzitzeko edo bidaltzeko, grabaketen zerrendan sartzeko edo grabaketak gorde nahi dituzun memoria eta karpeta aukeratzeko, hautatu **Aukera** eta nahi duzun aukera.

Ekualizadorea

Soinua egokitu musika erreproduzitailea erabiltzean.

Hautatu **Menua** > **Media** > **Ekualizadorea**.

Aurrez zehaztutako ekualizadore bat aktibatzeko, joan ezarpen-multzoetako batera eta hautatu **Aktibatu**.

Ekualizadore multzo berri bat eratzea

- 1 Hautatu zerrendako azken bi multzoetako bat eta **Aukera** > **Editatu**.
- 2 Joan ezkerrera edo eskuinera aurkezpen birtualetara sartzeko eta joan gora edo behera aurkezpena egokitzeko.
- 3 Ezarpenak gorde eta multzoari izena ezartzeko, hautatu **Gorde** eta **Aukera** > **Berrizendatu**.

Web

Zure telefonoaren arakatzailaren bidez hainbat Internet zerbitzutan sartzeko aukera duzu (sareko zerbitzua). Webguneen itxura alda daiteke pantailaren tamainaren arabera. Baliteke internet orrialdeetako xehetasun guztiak ikustea posible ez izatea.

Garrantzitsua: Fidagarriak diren eta segurtasun eta babes egokia ematen duten zerbitzuak bakarrik erabili software kaltegarrien aurka.

Zerbitzu hauen eskuragarritasuna, tarifak eta argibideak ezagutzeko, jo zerbitzu-hornitzailea.

Arakatzeko beharrezko ezarpenak zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-mezu batean jaso ditzakezu.

Zerbitzua konfiguratzeko, aukeratu **Menua** > **Web orria** > **Web ezarpenak** > **Konfig.-ezarpenak**, konfigurazio bat eta kontu bat.

Zerbitzu batera konektatzea

Zerbitzuari konektatzeko, hautatu **Menua** > **Web orria** > **Hasiera orria**; bestela, egonean moduan, sakatu eta eutsi sakatuta **0**.

Laster-marka bat hautatzeko, hautatu **Menua** > **Web orria** > **Laster markak**.

Azken aldian bisitatutako web helbidea hautatzeko, hautatu **Menua** > **Web orria** > **Azken web helb..**

Zerbitzu baten helbidea sartzeko, hautatu **Menua** > **Web orria** > **Helbidera joan**. Sartu helbidea eta hautatu **OK**.

Behin zerbitzuari konektatuta, orrietan zehar nabigatzen has zaitezke. Telefonoaren teklen funtzioak ezberdinak

izan daitezke zerbitzuen arabera.

Telefonoaren pantailako testu argibideak jarraitu. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure zerbitzuaren hornitzailearekin.

Kargatu sarean

Ireki zure partekatze zerbitzuaren web orria kargatutako irudiak eta bideoak ikusteko edo ezarpenak aldatzeko (sareok zerbitzua).

Ireki sareko partekatze zerbitzu bat

- 1 Aukeratu **Menua > Web > Webera kargak** eta sareko partekatze zerbitzu bat.
- 2 Aukeratu zerbitzuak eskainitako esteka bat

Aldatu sareko partekatze zerbitzu baten ezarpenak

- 1 Aukeratu **Menua > Web > Webera kargak** eta sareko partekatze zerbitzu bat.
- 2 Aukeratu **Aukera > Ezarpenak** zerbitzuko ezarpenen orria irekitzeko.

Itxura ezarpenak

Web orrian nabigatzean, hautatu **Aukera > Ezarpenak** eta ondorengoan artean:

Pantaila — Hautatu letra-tamaina, irudiak erakutsi behar diren eta testua nola bistaratu behar den.

Orokorra — Hautatu web helbideak Unicode (UTF-8) bezala bidali behar diren, edukien kodeketa mota eta JavaScript™ gaituta dagoen.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

Cache memoria

Cachea datuak denbora batez gordetzeko erabiltzen den memoriaren kokapena da. Pasahitzak erabiliz ezkutuko informaziorik sartu edo sartzen saiatuz gero, hustu ezazu beti gordailua erabili ondoren. Atzitutako informazioa edo zerbitzuak gordailuan gordeta daude.

Cookie bat webgune batek zure telefonoaren cache memorian gordetzen dituen datuak dira. Cookie-ak cache memoria hustu arte gordetzen dira.

Nabigatzean cache memoria husteko, hautatu **Aukera > Tresnak > Ezabatu cachea**.

Telefonoak cookie-ak onartu edo ukatu ditzan, hautatu **Menua > Web orria > Web ezarpenak > Segurtasuna > Cookieak**; bestela, nabigatzean, hautatu **Aukera > Ezarpenak > Segurtasuna > Cookieak**.

Nabigatzailearen segurtasuna

Baliteke segurtasun funtzioak behar izatea zerbitzu batzuentzako, banketxe-zerbitzuak edota lineako erosketak, esaterako. Konexio hauetarako, segurtasun-ziurtagiriak behar dituzu eta behar bada segurtasun-modulu bat ere bai, SIM txartelean eskuragarri dagoena. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Segurtasun-moduluaren ezarpenak ikusteko edo aldatzeko, edo telefonoan deskargatutako autoritate- edo erabiltzaile-ziurtagirien zerrenda ikusteko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Segurtasuna > Segurt.-modul. ezarp., Autorit.-ziurtagiriak** edo **Erabiltz.-ziurtagiriak**.

Garrantzitsua: Ziurtagiriak erabiltzeak urrutiko konexioa eta software instalazioarekin lotuta egon daitezkeen

arriskuak ia nabarmen gutxitzen dituen arren, ziurtagiri horiek zuzentasunez erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatu ahal izateko. Ziurtagiri bat izateak soilik, berez, ez du eskaintzen inolako babes motarik. Ziurtagiriaren administratzaileak ziurtagiri zuzenak, egiazkoak edo fidagarriak eduki behar ditu ziurtasun gehigarria erabilgarria izan dadin. Ziurtagiriak bizi iraupen mugatua izaten dute. "Ziurtagiri iraungia" edo "Ziurtagiri onartezina" oharrak agertzen badira, ziurtagiriak onargarria izan behar lukeen arren, egiazta ezazu telefonoko data eta ordua zuzenak direla.

Ziurtagiriaren ezarpen datutik aldatu baino lehen, ziurtagiriaren jabea konfidantzazkoa dela eta ziurtagiria benetan zerrendan dagoen jabearena dela egiazta ezazu.

Mapak

Mapetan hiri eta lurralde ezberdinetan zehar ibil zaitezke, helbideak eta interes puntuak bilatu, kokapen batetik besterako bideak planifikatu, kokapenak gorde eta gailu bateragarrirei bidali.

Ia mapa digital gehienak neurri batean edo bestean zehaztu gabe edo osatu gabe daude. Ez oinarritu telefono honetan ematen diren mapetan soilik.

Oharra: Mapak, sateliteko irudiak, ahots-fitxategiak, gidak edo trafikoaren informazioa deskargatzean datu kopuru handiak transmititzen dira (sareko zerbitzua).

Sateliteko irudiak, gidak, eguraldiari eta trafikoari buruzko informazioa eta bestelako zerbitzuak Nokiarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek sortu dituzte. Baliteke informazioa guztiz osatua eta zehatza ez izatea, eta

eskuragarritasunaren araberakoa izango da. Ez sekula informazio honetaz eta erlazionatutako zerbitzuez soilik fida.

Lortu Mapak aplikazioari buruzko informazio xehatua www.nokia.com/maps helbidean.

Mapak aplikazioa erabiltzeko, hautatu **Menua > Mapak** eta eskuragarri dauden aukeretatik.

Mapak deskargatzea

Telefonoak aurrez instalatutako mapak izan ditzake memoria txartelean. Mapa gehiago deskarga daitezke Internetetik Nokia Map Loader PC softwarea erabiliz.

Nokia Map Loader

Zure ordenagailuan Nokia Map Loader deskargatzeko eta bestelako informazioa jasotzeko, ikus www.maps.nokia.com.

Mapak lehen aldiz deskargatu aurretik, ziurtatu memoria txartela telefonoan sartuta duzula.

Hasierako konfigurazioa zehazteko, hautatu **Menua > Mapak**.

Zure memoria txarteleko mapa multzoa aldatzeko, erabili Nokia Map Loader memoria txarteleko mapa guztiak ezabatzeko eta multzo berri bat deskargatzeko, mapa guztiak publikazio berekoak direla ziurtatzeko.

Sareko mapa zerbitzua

Zure telefonoa doitu dezakezu beharrezkoa denean zure telefonoak bertan ez dituzun mapak automatikoki deskarga ditzan.

Hautatu **Menua > Mapak > Ezarpenak > Sarearen ezarpenak > Sarea erabiltz. baim. > Bai > Etxeko sarean edo Ez.**

Mapen deskargatze automatikoa ekiditzeko, hautatu **Ez**.

Oharra: Mapak, sateliteko irudiak, ahots-fitxategiak, gidak edo trafikoaren informazioa deskargatzean datu kopuru handiak transmititzen dira (Sareko zerbitzua).

Mapak eta GPS

Telefono barruko GPS hartzaileak satelitearen seinalea kokatutakoan, zenbait minutu igaro daitezke telefonoak uneko kokapena bistaratu arte.

Bestelako zerbitzuak

Mapak eguneratu dezakezu ahotsez gidatutako nabigazioa erabiliz, eskualdeko lizentzia beharrezkoa izanik.

Ahozko gida duen nabigatzaile bat erosteko, hautatu **Menua > Mapak > Zerbitzu gehigarriak > Erosi nabigazioa**, eta jarraitu argibideak.

Ahozko gida duen nabigatzailea erabiltzeko, Mapak aplikazioak sare konexioa erabiltzeko baimena eman behar duzu.

Nabibazio lizentzia zure SIM txartelari lotuta dago. Telefonoan beste SIM txartel bat sartuz gero, nabigazioa hastean lizentzia bat erosteko eskatuko zaizu. Erosterakoan, aurretik dagoen nabigazio lizentzia dohainik SIM txartela berrira transferitzea eskainiko dizute.

Antolatzailea

Iratzargailua

Alarma bat ezartzeko nahi duzun orduan.

Alarma ezartzea

- 1 Hautatu **Menua > Antolatzailea > Alarma**.

- 2 Aktibatu alarma eta idatzi alarmaren ordua.
- 3 Alarma asteko egun hautatuetan errepikatzeke, hautatu **Errepikatu**: > **Piztuta** eta egunak.
- 4 Hautatu alarmaren tonua.
- 5 Zehaztu errepikapena denboraz kanpo gelditzeko tartea eta hautatu **Gorde**.

Alarma gelditu

Jotzen ari den alarma gelditzeko, hautatu **Gelditu**.

Alarmari minutu batean jotzen uzten badiozu edo **Errepika**. hautatzen baduzu, alarma gelditu egingo da errepikapena denboraz kanpo gelditzeko tartean eta gero berriro hasiko da jotzen.

Egutegia

Hautatu **Menua > Antolatzailea > Egutegia**.

Gaurko eguna agertzen da nabarmenduta. Egunak oharririk badu, eguna hizki lodiz nabarmentzen da. Eguneko oharrak ikusteko, hautatu **Ikusi**. Aste bat ikusteko, hautatu **Aukera > Asteko ikuspegia**. Egutegiko ohar guztiak ezabatzeko, hautatu **Aukera > Ezabatu oharrak > Ohar guztiak**.

Ordu- eta data-ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukera > Ezarpenak**. Denbora-tarte jakin bat igaro ondoren oharrak automatikoki ezabatzeko, hautatu **Aukera > Ezarpenak > Auto-ezab. oharrak**.

Gehitu egutegiko ohar bat

Joan data, eta hautatu **Aukera > Ohar bat egin**. Hautatu ohar-mota eta sartu xehetasunak dagozkien eremuetan.

Egitekoen zerrenda

Egin beharreko ataza bati lotutako oharra gordetzeko, hautatu **Menua** > **Antolatzailea** > **Egitekoen zerr..**

Ohar bat egiteko oharrik gehitu ez bada, hautatu **Jar ohar.**; bestela, hautatu **Aukera** > **Gehitu**. Bete eremuak, eta hautatu **Gorde**.

Ohar bat ikusteko, joan oharrera, eta hautatu **Ikusi**.

Oharrak

Oharrak idatzi eta bidaltzeko, hautatu **Menua** > **Antolatzailea** > **Oharrak**.

Oharrik ez badago ohar bat idazteko, hautatu **Ohr. geh.**; bestela, hautatu **Aukera** > **Egin oharra**. Idatzi oharra, eta hautatu **Gorde**.

Kalkulagailua

Zure telefonoak kalkulagailu normala, zientifikoa eta dibisa kalkulagailua du.

Hautatu **Menua** > **Antolatzailea** > **Kalkulagailu**, kalkulagailu mota eta argibideak.

Kalkulagailuaren doitasuna mugatua da, eta kalkulu errazak egiteko soilik balio du.

Atzerako denboragailua**Denboragailu normala**

- 1 Denboragailua aktibatzeke, hautatu **Menua** > **Antolatzailea** > **Denborag.** > **Denborag. arrunta**, denbora bat sartu, eta denbora agortzean agertuko den ohar bat idatzi. Denbora aldatzeko, hautatu **Ordua aldatu**.
- 2 Denboragailua abiarazteke, hautatu **Hasi**.
- 3 Denboragailua geldiarazteke, hautatu **Denborag. geldiar..**

Tarte denboragailua

- 1 10 tartetara arteko tarte denboragailu bat abiarazteke, aurretik tartek sartu.
- 2 Hautatu **Menua** > **Antolatzailea** > **Denborag.** > **Tarte denborag..**
- 3 Denboragailua abiarazteke, hautatu **Denborag. hasi** > **Hasi**.

Tarteen tenporizadoreak hurrengo tarte nola hasi behar duen zehazteko, hautatu **Menua** > **Antolatzailea** > **Denborag.** > **Ezarpenak** > **Jarraitu hurr. aldira**.

Kronometroa

Kronometroa erabiliz, denbora neur dezakezu, eta bitarteko denborak eta bira-denborak jaso ere bai.

Hautatu **Menua** > **Antolatzailea** > **Kronometr.** eta hauetariko bat:

Denb. kontr. zati — bitarteko denborak jasotzeko. Denbora gorde gabe berrezartzeko, hautatu **Aukera** > **Zeroan jarri**.

Itzul. denb. kontr. — itzuli bakoitzeko denborak jasotzeko.

Jarraitu — atzealdean ezarri duzun denbora ikusteko. Kronometroaren denbora atzealdean ezartzeko, sakatu amaitze-tekla.

Azkena erakutsi — neurtutako azken denbora ikusteko kronometroa berrezarri ez bada

Denborak ikusi edo **Denborak ezabatu** — gordetako denborak ikusteko edo ezabatzeke

Kronometroak atzeko planoan funtzionatzea nahi baduzu, sakatu amaitze tekla.

Aplikazioak

Baliteke telefonoak hainbat joko edo aplikazio instalatuta izatea. Fitxategi horiek telefonoaren memorian edo memoria-txartel batean gordeta daude eta karpetak erabiliz antola daitezke. [Ikus "Memoria txartela"32.](#)

Ireki aplikazio bat

Hautatu **Menua > Aplikazioak > Jokoak, Bilduma edo Memoria txartela**. Joan joko edo aplikazio batera eta hautatu **Ireki**.

Joko baten soinuak, argiak eta bibrazioak ezartzeko, hautatu **Menua > Aplikazioak > Aukera > Ap. ezarpenak**.

Aplikazioen aukerak ikusteko, hautatu **Menua > Aplikazioak > Bilduma > Aukera**.

Hautatu hauetariko bat:

Berts. eguneratu — Egiaztatu aplikazioaren bertsio berri bat sarean deskargatzeko eskuragarri dagoen (sareko zerbitzua).

Web orria — Eskuratu aplikazioari buruzko datu edo informazio gehiago web orri batean (sareko zerbitzua), eskuragarri badago.

Ap. sarrera — Mugatu aplikazioa sarean sar ez dadin.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

Aplikazio bat deskargatu

Zure telefonoak J2ME™ Java aplikazioak onartzen ditu. Deskargatu baino lehen, egiaztatu aplikazioa zure telefonoarekin bateragarria dela.

Garrantzitsua: Seguruak diren iturrietako aplikazio eta softwareak soilik instalatu eta erabili. Symbian Signed edo Java Verified™ aplikazioen proba gainditu dutenak, adibidez.

Aplikazio eta joko berriak zenbait modutan deskarga ditzakezu:

- Hautatu **Menua > Aplikazioak > Deskargak > Aplikazio-deskargak** edo **Jokoan deskargak**; eskuragarri dauden laster marken zerrenda agertuko da.
- Erabili Nokia Application Installer PC Suite-n aplikazioak zure telefonora deskargatzeko.

Zerbitzu ezberdinen eskuragarritasuna eta tarifak ezagutzeko, jo zerbitzu-hornitzaileara.

SIM zerbitzuak

Zure SIM txartelak zerbitzu gehiago eskein ditzake. Zure SIM txartelak onartzen badu bakarrik erakusten da menu hori. Zerbitzu eskuragarriak nolakoak, menuaren izena eta edukiak halakoak.

SIM zerbitzuak erabiltzean zure telefonoaren eta sarearen artean bidalitako berrespen mezuak erakusteko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Egiazt. SIM ekintzak**. Telefonoaren arabera, agian zure SIM txartelan aukera hau ez da eskuragarri egongo. Informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan zure sare operadorearekin.

Baliteke zerbitzuetara sartzeko mezuak bidali behar izatea edota kobratuko zaizun dei bat egin behar izatea.

Osagarriak

Abisua:

Nokia konpainiak modelo zehatz honekin erabiltzeko homologatutako batería, kargagailu eta osagarriak bakarrik erabili. Bestelakorik erabiliz gero, onarpen eta bermeak indargabetu litezke eta arriskutsua izan liteke. Onartu gabeko kargagailu edo batería bat erabiltzeko sute, leherketa, isurketa edo bestelako arriskuren bat suposa lezake.

Osagarri homologatuak non eskuratu daitezkeen jakiteko, jo ezazu zure banatzailearengana. Osagarriren baten kablea kentzeko, entxufetki eutsi eta tira, ez eutsi kabletik.

Bateria

Bateria eta kargagailuaren informazioa

Telefonoa batería kargagarri batekin elikatzen da. Telefonoa honekin erabili beharreko batería BL-6Q da. Baliteke Nokiak batería modelo gehiago eskuragarri izatea telefono honentzat. Telefono hau ondorengo bateriek emandako engeriarekin erabili behar da: AC-8, AC-15. Kargagailuaren modelo zenbakia ezberdina izan daiteke entxufe motaren arabera. Entxufe ezberdinak ondorengo bidez identifikatzen dira: E, EB, X, AR, U, A, C, K edo UB.

Batería behin eta berriro karga edo deskarga daiteke, baina azkenean agortu egiten da. Hitz egiteko eta egoneko tarreak ohi baino nabarmen laburragoak badira, batería aldatu egin beharra dago. Erabili soilik Nokiak onartutako bateriak eta kargatu batería Nokiak zure telefonorako diseinaturiko kargagailu homologatuekin soilik.

Batería lehenengo aldiz erabiltzeko, edo batería luzaroko erabili ez baldin bada, beharbada kargagailua konektatu, deskonektatu eta berriz ere konektatu egin beharko da batería kargatzen has dadin. Batería guztiz deskargatuta baldin badago, kargagailuaren ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

Segurtasunez kentzea. Batería kendu aurretik, beti telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

Modu egokian kargatzea. Kargagailua erabiltzen ari ez bazara, desentxufatu eta telefonotik deskonektatu. Ez utzi guztiz kargatutako bateriarik kargagailura konektatuta, gehiegi kargatzeak bateriaren iraupena labur baitezake. Guztiz kargatutako batería erabili gabe utziz gero, pixkanaka deskargatu egingo da.

Saihestu tenperatua altuegiak edo baxuegiak. Batería 15° eta 25° artean gordetzen saiatu. Tenperatura oso altu edo baxuek bateriaren bizitza eta gaitasuna murrizten dituzte. Baliteke batería beroa edo hotza duen telefonoak denboraldi batean ez funtzionatzea. Bateriaren errendimendua asko gutxitzen da zero azpiko tenperaturetan.

Ez eragin zirkuitulaburrik. Nahi gabe zirkuitulaburra sor daiteke, metalezko objekturen batek (txanpon bat, klip bat edo axota bat, adibidez) bateriaren terminal positibo (+) eta negatiboak (-) zuzenean konektatzen baditu. (horiek banda metalikoen antza dute baterian). Sakelean edo poltsan ordezko batería bat eramanez gero hori gerta liteke. Termialetan zirkuitu-laburrik gertatuz gero, batería edo konektatutako objektua hondatu egin litezke.

Botatzea. Bateriak ez sutara bota, leheritu egin daitezke eta. Bateriak botatzeko garaian, tokian tokiko arauak bete behar dira. Ahal dela, birziklatu. Ez bota etxeko gainerako hondakinekin batera.

Isurtzea. Ez desmuntatu, moztu, ireki, bihurritu, deformatu, zulatu edo txikitu telefonoa edo bateriak. Isurketarik gertatuz gero, saihestu bateriaren likidoa azala edo begiak ukitzea. Hori gertatuz gero, busti urarekin kaltetutako tokiak ahal bezain laster edo zoaz medikuaarengana.

Kaltetzea. Ez ezazu batería itxuraldatu eta ez iezaiozu objektu artotzik sartu. Era berean, ez ezazu batería ur edo beste likidoren batean murgildu edo busti. Bateriak leheritu egin daitezke hondatuta badaude.

Behar bezala erabiltzea. Batería dagokion helbururako bakarrik erabili. Bateriaren erabilera okerrak sute, leherketa edo bestelako arriskuren bat eragin lezake. Telefonoa edo batería eroriz gero, gainazal gogor batera bereziki, eta kaltetu egin dela irudituko baltzaizu, eraman ezazu zerbitzu zentronen batería erabiltzen jarraitu aurretik. Ez erabili hondatuta dagoen kargagailu edo bateriarik. Zure batería umeen eskuetatik urrun mantendu.

Nokia batería autentikatzeko jarraibideak

Erabil itzazu beti Nokia batería originalak zure segurtasunerako. Nokia konpainiaren jatorrizko batería bat erabiltzen ari zarela egiaztatzeko, erosi batería Nokia konpainiak baimendutako denda batean eta egiaztatu jatorrizko holograma duela ondorengo pausoak jarraituz:

Holograma autentikatu

- 1 Hologramaren etiketa begiratzerakoan, Nokiaren esku elkartuen ikurra ikusi beharko litzateke angelu batetik eta Nokia Original Enhancements logotipoa bestetik.



- 2 Holograma ezkerrean, eskuinera, gora eta behera okertzean, 1, 2, 3 eta 4 puntu ikusi beharko lireratek alde bakoitzean hurrenez hurren.



Hurrengo urratsak zuzentasunez bete arren, ezin da bateriaren egiazkoa dela guztiz ziurtatu. Bateriaren jatorria ezezaguna bada edo edozein arrazoiengatik Nokiaren holograma duen bateriaren egiazkoa ez dela susmatuz gero, ez ezazu erabili eta eraman ezazu hurbilen duzun Nokia zerbitzu-gunera edo zerbitzu-hornitzailearengana laguntza eskatzeko.

Nokia bateriei buruz gehiago jakiteko, zoaz www.nokia.com/battery helbidera.

Arreta eta mantenimendua

Zure telefonoa diseinu eta fabrikazio bikaineko produktu bat da, eta kontuz erabili behar da. Hurrengo proposamen hauek garantiaren estaldura babesten lagunduko dizute.

- Telefonoa lehor manten ezazu. Euriak, hezetasunak eta mota guztietako likidoek edo egoera bustiek, zirkuitu elektronikoak erdoil ditzaketen mineralak izan ditzakete. Zure gailua bustiz gero, atera bateriaren, eta utzi jeziauzo guztiz lehertzen berriz jarri baino lehen.
- Ez erabili edo gorde telefonoa toki zikin edo hautsez betetako tokietan. Atal higikorrek eta osagarri elektronikoak honda daitezke.
- Ez ezazu telefonoa toki beroetan gorde. Temperatura altuek gailu elektronikoaren iraupena laburtu, bateriaren hondatu eta plastiko batzuk deformatu edo urtu ditzakete.
- Ez ezazu gorde gailua toki hotzetan. Gailua bere tenperatura normalera bueltatzen denean, barruan hezetasuna sor daskioke, eta horrek, zirkuitu elektronikoaren plakak honda ditzake.
- Ez zaitze telefonoa gida honetan azaltzen ez den modu batean zabaltzen saiatu.
- Ez ezazu utzi telefonoa lurrera erortzen; ez kolpatu edo astindu telefonoa. Modu zakarrean erabiliz gero, barruko zirkuituen plakak eta atal hauskorrenak apur daitezke.
- Ez ezazu erabili produktu kimiko kaltegarriak, disolbatzaileak edo garbigarri gogorrik telefonoa garbitzeko.

- Ez ezazu telefonoa margotu. Margoak atal mugikorrek buxatu eta funtzionamendu egokia galarazi dezake.
- Erabili ezazu zapi leun, garbi eta lehor bat leintzek garbitzeko; kamera, hurbiltasun sentsore edo argi sentsore leintzek esaterako.
- Telefonoarekin batera hornitu edo homologatutako ordeko antena soilik erabili. Baimenik gabeko antena, aldaketa edo atxikitako elementuek, gailua hondatu eta irratitresnen araudien urratze bat suposa ditzakete.
- Kargagailua beti toki baten barruan erabili, ez aire librean.
- Sor ezazu beti gorde nahi duzun datuen segurtasun kopia bat, kontaktu eta agendako oharra, esaterako.
- Noizean behin telefonoa berrezarri eta honen etekinik onena ateratzeko, itzal ezazu telefonoa eta ken jeziauzo bateriaren.

Gomendio hauek berdin balio dute telefono, bateri, kargatzaile edo beste edozein ekipamenduentzat. Telefonoren bat ongi ez badabil, eraman ezazu zure inguruan dagoen baimendutako zerbitzu gunera.

Botatzerakoan



Telefonoan, edo haren dokumentu zein kaixan agertzen den gurutzete batez estalitako zaborrontziak produktu elektriko edo elektronikoak, bateriak eta metagailuak funtzionaltzeaz urten diotenean biltegi berezietara eraman behar direla gogorarazten du. Hau Europar Batasunean eta bilketa sailkatua eskuragarri dauden beste herrialde batzuetan bete beharrekoa da. Produktu hauek ezin dira sailkatu gabeko udal-zabortegetian botatu.

Produktuak bilketa guneetara eramanez zaborrak kontrolik gabe uztea saihesten laguntzen duzu eta baliabide materialak berrerauzteko bultzatu. Produktu hornitzaileak, tokiko zabortegi arduradunek, produkzio ardurako erakunde nazionalak eta tokiko Nokiaren ordezkariak xehetasun gehiago eskaini diezazkizuke. Produktuaren ekologia agiria edo produktu zaharkituen biltegiatze berezirik informazioa jasotzeko zoaz www.nokia.com helbideko herrialde jakin baten informazio atalera.

Segurtasun informazio osagarria Ume txikiak

Telefonoa eta honen osagarriak ez dira jostailuak. Zati txikiak izan ditzakete. Haurren eskumenetik kanpo mantendu.

Inguru eragilea

Telefono honek irratitresnietatik esposizio-arauak betetzen ditu baldin eta modu egokian erabiltzen bada edo belarririk honako gutxieneko tartea mantentzen bada: 1,5

zentimetro (5/8 hazbete). Soinean eraman ditzakezun zorro babesle, gerriko poltsatxo edo euskarriek ez lukete metalik izan behar eta telefonoa gorputzetik aurrez aipatutako distantziara eraman beharko zenuke.

Datu-fitxategiak edo mezuak balditzeko, kalitate oneko sare konexioa beharrezkoa da. Datu-fitxategiak edo mezuak beranduago bidaliko dira horrelako konexioaren bat eskuragarri egon arte. Jarraitu utzi beharreko tarteari buruzko argibideak transmisioa amaitu arte.

Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoei, telefono mugikorrek barne, modu ezegokian babestutako tresna medikoen funtzionamenduan eragin dezakete. Jarrri harremanetan medikuarekin edo gailu medikoaren egilearekin kanpoko irrati-frekuentziaren energiati ondo babestuta daudela zehazteko. Itzali telefonoa argitaratutako arauak hori egitea eskatzen dituztenean. Ospitaleetan edo osasun zentroetan irrati-frekuentziaren energiarekiko sentikorra den ekipamendua erabil daiteke.

Medikuntzako tresna inplantatuak

Medikuntzako tresnen egileek hari gabeko gailuaren eta inplantatutako mediku tresnaren artean, taupada-markagailu edo desfibriladoreak esaterako, gutxienez 15,3 zentimetroko (6 hazbeteko) tarte egotea gomendatzen dute medikuntza tresnarekiko egon daitezkeen interferentziak ekiditeko. Tresna hauetakoren bat darabilten pertsonak:

- Eduki haririk gabeko gailua tresna medikotik 15,3 zentimetrotara (6 hazbetetara) baino gehiagotara
- Ez eraman telefonoa paparreko zorro batean.
- Eduki haririk gabeko gailua tresna medikoa dagoen kontrako belarrian.
- Interferentziaren bat dela susmatu bezain laster, itzali hari gabeko telefonoa.
- Jarraitu egilearen argibideak inplantatutako gailu medikoari dagokionez.

Zure haririk gabeko telefonoa medikuntzako tresna batekin batera erabiltzei buruzko zalantzarik izanez gero, jar zaitez zure sendagilearekin harremanetan.

Entzuteko aparatuak

Gailu mugikor digital batzuek audiofono batzuetan eragina izan dezakete.

Ibilgailuak

Irrati-frekuentziako seinaleek ibilgailuetan gaizki instalatutako edo gaizki babestutako sistema elektronikoetan eragina izan dezakete, hala nola, erregaiaaren injekzio elektronikoetan, balazten blokeoa saihesteko sistema elektronikoetan, abiaduraren kontrol elektronikoetan edo airbag sistemetan. Informazioa lortzeko, egiaztatu autoaren edo honen ekipamenduen fabrikatzailearekin.

Langile kualifikatuek soilik ikuska ditzakete telefonoak eta ibilgailuetan instalatu. Behar bezala instalatu edo erabili ezean, arriskuak sor daitezke eta bermea baliogabe daiteke. Egiaztatu erregularki ibilgailuan instalatutako hari gabeko osagarriek behar bezala funtzionatzen dutela. Ez gorde edo eraman likido sukioak, gasak edo material lehergarriak telefonoa, haren zatiak edo osagarriak daramatzazun toki berean. Gogoratu airbag-ak indar handiarekin puzten dela. Ez jarri telefonoa edo osagarriak airbag-a aterako den tokian.

Itzali telefonoa hegazkinera igo aurretik. Hari gabeko gailuak hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren funtzionamendurako eta legez kanpoko izan daitekeelako.

Balitzko ingurune leherkorak

Itzali telefonoa leherketak gertatzeko arriskua badago. Bete argitaratutako argibideak. Txinpartak horrelako inguruetan gertatu gero, leherketak edo suteak gerta daitezke, kalte fisikoak edo heriotza eraginez. Itzali telefonoa gasolina inguruan dagoenean, gasolindegietan, adibidez. Jarraitu gasolina gordetzen eta banatzen den tokietan erabiltzeko murriztapenak, bai eta gune kimikoetan edo eragiketa arriskutsua abian direnean ere. Leher daitezkeen ingurumena duten lekua argi eta garbi markatuta egon ohi dira, baina ez beti. Zure autoaren motorra itzaltzeko eskatzen zaizun tokiak, itsasontzietako bizkar azpian, transferentzia kimikoak egiteko edo biltegitartzeko eraikuntzak eta aireak alea, errautsa edo metalezko partikulak dituen ingurumenak barne. Likido egindako petroleo-gasa erabiltzen duten autoen egileekin egiaztatu behar duzu (butano edo propano, esaterako) hurbilean gailu hau segurtasunez erabil daitezkeen zehazteko.

Larrialdi-deiak

Garrantzitsua: Telefono mugikorrek, telefono hau barne, irrati-seinaleak, haririk gabeko eta lehorreko sareak eta erabiltzaileak programatutako funtzioak erabiliz funtzionatzen dute. Telefonoa larrialdi-deiak sare zelularren bidez soilik egiten saiatuko da. Ez da uneoro konektatzeko aukera izateko ziurtatzen. Ez zaitez inoiz egon telefono mugikor baten menpe komunikazio garrantzitsuetarako, adibidez, osasun larrialdi baterako.

Larrialdi deiak egiteko:

- 1 Telefonoa itzalita baldin badago, piztu ezazu. Seinaleak behar besteko indarra daukan begiratu. Telefono motaren arabera, baliteke ondorengoak ere egon behar izatea:
 - SIM txartela sartu, telefonoak erabiltzen badu.
 - Aktibatuta ditzun zenbait dei murrizketa ezgaitu.
 - Profila gehaldi edo lineaz kanpoko modutik modu aktibo batera aldatu.
- 2 Sakatu amaitzeko tekla behar bezain beste pantaila ezabatzeko eta telefonoa deietarako prestatzeko.

- 3 Sartu zauden tokiko larrialdi zenbaki ofiziala. Larrialdi zenbakiak tokiaren arabera alda daitezke.
- 4 Sakatu deitzeko tekla.

Larrialdi dei bat egitean, eman ezazu beharrezko informazio guztia ahalik eta zehatzen. Zure gailu mugikorra komunikatzeko modu bakarra izan daiteke istripu bat dagoen tokian. Deia ez bukatu hori egiteko baimenik ez den bitartean.

Ziurtagiri informazioa (SAR)

Telefono honek irrati uhinekiko arriskuari buruzko arauak betetzen ditu.

Zure telefono mugikorra irrati-igorlea eta irrati-hargailua da. Araudi internazionalak gomendatzen duten irrati uhinekiko arrisku egoerara ez heltzeko diseinatua dago. Araudi hauek ICNIRP elkarte zientifiko independenteak garatu ditu eta pertsona guztiak babesteko marjina daukate, adina edo osasuna kontutan izan gabe.

Telefono mugikorren arriskuen kontrako araudiak Berariazko Absortzio Tasa (Specific Absorption Rate) edo SAR moduan ezagutzen den neurri unitate bat erabiltzen du. ICNIRP araudian ezartzen den SAR limitea 2.0 watt/kilogramo (W/kg)-koa da, 10 gramoko ehunean erabiltza batezbeste. SAR probak funtzionamendu posizio estandarretan egiten dira, telefonoak potentzia mailarik altuenean transmititzen duen bitartean probatutako frekuentzia banda guztietan. Funtzionatzen ari den telefono baten kasuan kasuko SAR maila, gehiengo balioaren azpitik egon daiteke, zeren telefonoa sarea atzitzeko behar duen indarra erabiltzeko bakarrik diseinatuta baitago. Kantitatea faktore batzuen arabera alda daiteke, adibidez, sare estazio gune batekiko zein hurbil zauden.

SAR balio altuena ICNIRP araudien arabera telefonoa belarrian erabiltzeko honakoa da: 0,41 W/kg.

Telefonoaren osagarriak erabiltzeak SAR balio ezberdinak eman ditzake. SAR balioak proba eta informazio nazionalen eskakizunen eta sareko bandaren araberakoak izan daitezke. SAR-i buruzko informazio gehiago jasotzeko kontsultatu ezazu produktuari buruzko informazioa helbide honetan: www.nokia.com.

Aurkibidea**A**

adierazleak	13
aholku lagungarriak	7
ahots bidezko markatzea	15
ahots-azterketa	29
ahots-grabagailua	35
ahots-komandoak	29
aplikazioak	41
arakatzailea	36
argiak	27
atalak	11
audio hobekuntza	28

B

bateria	10
bateriaren kargaren egoera	13
Berehalako mezuak	20, 21
bideoak	33
birmarkatu	28
bisita-txartelak	24

C

cache memoria	37
cookie-ak	37

D

datu kablea	26
debeku pasahitza	6
dei erregistroa	24
dei-desbideratzea	28
deia zain	28
deitzaile IDa	28
deskargak	7

E

edozein teklaekin erantzun	28
egoera adierazleak	13
egutegia	39
ekualizadorea	36
ezarpenak	26

F

flash mezuak	17
--------------	----

G

gaiak	27
GPRS	26
GPS (Posizionamendu Globaleko Sistema)	39
grabagailua	35

H

hasiera pantaila	13, 27
hegaldi kontsulta	29
hegaldi-modua	14
hizki tamaina	27
hizkuntza	28
horma papera	27

I

IM	20
IM (istanteko mezularitza)	23
informazio mezuak	18
internet	36
iratzargailua	39
irratia	35
irudiak	33
irudiak inprimatu	32
istanteko mezularitza	20

J

jasotako deien denboragailua	28
Jatorrizko ezarpenak	31
jokoak	41

K

kalkulagailua	40
kamera	33
kokapen erregistroa	24
kokapen informazioa	24
konexio gabeko modua	15
konfigurazioa	29
konfigurazioa ezartzeko zerbitzua	7
kronometroa	40

L		posta elektronikoaren konfigurazioa	19
laguntza-testua	29	profilak	26
lasterbideak	13, 28	PUKa	6
M		S	
mail	22	sarbide kodeak	6
Mapak	38	segurtasun kodea	6
markatze bizkorra	15, 24, 28	segurtasun modulua	6
markatze lasterbideak	15	seinalearen indarra	13
markazio lasterbideak	24	SIM	
memoria txartela	10, 32	— zerbitzuak	41
mezu zentroaren zenbakia	16	SIM mezuak	18
mezua bidaltzea	17	SIM txartela	9, 15
mezuen ezarpenak	18	software eguneratzea	8
microSD txartela	10	softwareko eguneratzea	30
multimedia erreproduzitzailea	34	T	
My Nokia	7	teklak	11
N		teklatuaren blokeoa	15
Nokia Care	8	telefonoaren software eguneratzeak	29
O		tonuak	27
oharrak	40	txateatzeko zerbitzuak (IM)	23
operadore menua	31	U	
osagarriak	29	uhala	11
P		UPINa	6
pakete datu irрати zerbitzua	26	USB datu kablea	26
pakete datuak	26	W	
pantaila	13, 27	weba	36
pantaila-babesa	27	Z	
partekatu	37	zerbitzu komandoak	18
partekatu sarean	37	zorroa	29
PC Suite	26		
PictBridge	26		
PINa	6		
pizteko tonua	29		
posta	19, 21		
posta elektronikoa	19, 21		
posta elektronikoa, eranskinak	20		
posta elektronikoa, irakurri eta erantzun	20		
posta elektronikoa, sortu	20		